




# Barrena

## Euskara gara

Itziartik, Debatik eta Mutrikutik igarota, bihar berriz sartuko da Korrika Debabarrenean: Azkoitik iritsiko da Elgoibarrera, 19:26 aldera, eta Soraluzen, Eibarren, Ermuan eta Mallabian barrena ibiliko da gero, harik eta Areitio gainean agurtu arte / 2-5



Korrika, asteazkenean, Debatik igarotzen.

KORRIKA

→ Egunero, milaka pertsonak lan egiten dugu Euskadiko ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza jaso dezaten eta konfiantzaz haz daitezen.



GURE HEZKUNTZA,  
GURE ETORKIZUNA. HEMEN  
ORAIN  
ZUREKIN

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



DEBABARRENA

# Bigarrenez sartuko da 24. Korrika Debabarrenean, bihar, hilak 28

Asteazkenean Itziartik, Debatik eta Mutrikutik igarozen, eta bihar, larunbata, Elgoibar, Soraluze, Eibar, Ermua eta Mallabia gurutzatuko ditu

**Ainara Argoitia** DEBABARRENA

Errepidean dabil Korrika, euskararen aldeko kontzientziak suspertzeko eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko 1980az geroztik AEK-k bi urtean behin antolatzen duen ekimena; euskararen eta euskaltzaleen bizigarria. Izan ere, ez ditu oraintxe garai gozoak bizi euskarak. Hala ohartarazi zuen AEKren Nazio Kontseiluko kide Bixente Claveriek berak ere Atharratzen abiatu aurretxoan, ofizialtasun faltak, oldarraldi judizialak eta instituzioen atzerapausoak euskararen garapena oztopatzen ari direla, baina, hala ere, herri oso bat lotzeko eta herri oso bat bizirik sentiarazteko gai dela erakutsiko du Korrikak, milaka eta milaka euskaltzale euskararen alde korrika jarrita. Hain zuzen ere, horixe nabarmendu nahi izan dute *Euskara gara* aurtengo leloarekin ere. Euskara dela gure identitatea, bereizten gaituena; alegia, euskara garela gu, eta gu barik ez dagoela euskararik.

Hamaika egunez eskuz esku erabiliko dute Korrikaren lekukoa euskaltzaleek, Zuberoatik mendebaldera, Pello Reparazek Maixux Zugarramurdiarekin eta Erramun Martikorenarekin batera sortu duen izen bereko kantuak dioen bezala. 24. Korrika da aurtengoa, eta Errigora izango du omendua, euskaratik, euskararentzat eta euskaraz lanean ari den herri ekimena; Nafarroa hegoaldeko produktuei Euskal Herrian bidea eman eta euskara ofiziala ez den zonan eragitea helburu duena.

**Debabarrenean, birritan**

Martxoaren 19an abiatu zen Korrika, Atharratzetik, ostegunarekin, eta domekan, martxoaren 29an, amaituko da, Bilbon, Euskal Herria alderik alde gurutzatu ondoren. 2.175 kilometroko ibilbidea osatuko du, eta bidean 460 herritatik igaroko da; tartean, Debabarreneko zortzi herritatik –Mendarotik ez, beste guztietatik–. Astelehenean sartu zen Gipuzkoan, Lizartatik, eta asteazkenean iritsi zen Debabarrenera, Zumaian barrena. Elorriaga auzorako kilometro baten faltan hartu zuten itziartarrek lekukoa, eta euskararen aldeko aldarriari Eskola Txikiaren aldekoa batu zioten, datorren ikasturtean, lehen aldiz, Itziartarrek Eskola Txiki propioa izango baitu, hogeitau urte baino gehiagoko borrokaren ostean.

Itziarren behera egin eta Debatik eta Mutrikutik igarota, Bizkaian barneratu zen iluntzean, baina bihar, zapatua, bigarrenaz sartuko da eskualdean; bihar ere, Urolatik, Azkoititik. Azkarateko gainean hartuko diete lekukoa elgoibartarrek azkoitiarrei, 19:26 aldera, eta eskuz esku erabiliko dute hogeita bederatzi eragiletako ordezkariak Elgoibarren, harik eta Zaturion eibartarrei emango dieten arte. Maltzagan, baina, Soraluzerantz hartuko du Korrikak; han itzulia egin, eta berriro atzera egingo du, Eibarrerantz. Gipuzkoatik Bizkaira egingo du gero, eta, Ermua eta Mallabia gurutzatu ostean, Aretio gainean agurtuko dugu debabarrendarrok, bi urte barrura arte. Mallabitik Zaldibarrera egingo du.



Datorren ikasturtean Eskola Txikia izango dutela ospatu dute itziartarrek Korrikan. KORRIKA



Lasturtarrak, kamiseta gorriak soinean, pozarren. KORRIKA



Debasket eta Amaiak Bat taldeetako neskak. KORRIKA



Zurrunbilo eta Iruleak taldekoak, Itziartik behera. KORRIKA



Zuhatza euskara elkartekoak, lekukoarekin. KORRIKA



Eider Mendoza diputatua eta Alazne Txurruka alkatea. KORRIKA



Debako kontalariak eta Debako Gazte Blokea. KORRIKA



## ELGOIBAR

## Elgoibarrera iritsiko da bihar 24. Korrika

Aurtengo edizioan 29 lekuko-hartze izango dira guztira Elgoibarren

**Ainara Argoitia** DEBABARRENA

Debabarrean bigarren sartu-irtena egingo du bihar, zapatua, Korrikak. Azkoititik iritsiko da euskararen aldeko ekimena Elgoibarrera, Azkaraten behera. La Roita kuadrilla-koak izango dira lekukoa hartzen aurrenak, bihar, 19:26 aldera, Azkarateko tunelaren irteeran, eta eskuz esku erabiliko dute dozenaka elgoibartarrek lekukoa Zaturion eibartarrei eman arte.

Aurten, 29 lekuko-hartze izango dira guztira. Korrikak honako ibilbide hau osatuko du, Azkaratetik behera: Arriaga auzora iritsitakoan Karkizanon gora egingo du eta San Pedroko etxeetatik barrena Melitongo zubiraino jaitsiko da. Gero, trenbide azpitik pasatuta, Iñigez Karkizaora egingo du. AEK Euskaltegiaren aurretik igaroko da Korrika, eta ikastola aurretik behera Maalara jaitsiko da. Maalan egingo diete ongi-torria herriarrek, Mauxitza txarangakoak lagun hartuta.

Maalatik San Frantzisko kale-ara egingo du gero eta Altzolatarren dorretxera arte joango da, ondoren Errosario kaletik Kalegoen plazaraino igotzeko. Han itzulia egin eta San Bartolome kalean behera etorriko da, Kalebarren plazaraino, eta berriro hartuko du gora Errosario kaletik. Santa Ana kaletik aurrera egingo du ondoren eta, bidegorria hasten den lekuan, industrialdera sartuko da handik errepide nagusira irteteko. Elgoibarko Saretik Korrikara Sareko banderolak hartuta agertzeko deia egin dute. Kalegoen plazan jarri dute ordua, 20:05era-ko.

### Korrikarako berotze jarduerak, gaur eta bihar

Korrika Txikia egitekoa zuten atzo kalez kale Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako eskola-umeek, baina eguraldi-egatik ikastetxeetan egin zuten. Gaur, berriz, Korrika txiki-txikia egitekoa dute He-

rri Eskolako HHko haurrek Urazandiko parkean, 15:00etan. Eta bihar arratsalde-iluntzerako eta gauerako beste hainbat ekintza iragarri dituzte herriko gazteek.

Hasteko, Elgoibarren euskalduntasuna sustatzeko lanean ari den Elgoibarko Izarraren ZZ Nagiak kentzen lantaldeak kalejira eta zumba saio musikatu antolatu ditu bihar arratsalderako. Mauxitza txarangakoekin egingo dute kalejira, 17:45etik 18:30ak aldera arte, Kalegoen plazan hasi eta Maalako parkeraino. Hantxe egingo dute zumba saioa, 18:30etik 19:25era bitartean, 20:00etan Korrikari egingo zaion ongi-torrira batuko baitira gero guztiak. Korrika agurtu ondorenerako, musika jaialdia antolatu dute La Roita kuadrilla-koek Sutegixa Gaztetxean. Xaribari eta Patxangoi herriko musika taldeek emango dituzte kontzertuak, 22:00etatik aurrera.

## Lekuko hartzeak

- 3112. La Roita kuadrilla. Azkarateko tunelaren irteeran
- 3113. Catt Morkaiko Trail taldea. 35-36 kilometro parean
- 3114. Sanlo EKT. Errepideko zubipean, 36. kilometroan.
- 3114. Etxepe. Azkaraterantz eskuma aldean dagoen geralekuan.
- 3115. Engranajes Grindel S.A.L. 37. kilometro parean
- 3116. Danobat Group S. Coop. 38 kilometroa
- 3117. Rodisako LABeko ordezkariak. Arriagako biribilgunea
- 3118. Marcajes Telleria S.L. Argindar zentrala
- 3119. Elgoibarko Gazte Asanblada. Trenaren tunela
- 3120. Haritz Euskal Dantzari Taldea. Mezkitza
- 3121: Haizea emakume taldea. Mataderoko aparkalekua
- 3121. Elgoibarko EAJ. Toletxe kalerako lurrazpiko pasabidea
- 3121. Elgoibarko AEK Euskaltegia. Babes ofizialeko etxebizitzaren azken blokea
- 3122. Aizu ostalaritza elkarte. Gaztelekua
- 3123. Mauxitza txaranga. Garitaonandia farmazia
- 3123. Ikastolako langileak. Malape parean
- 3123. Ikastolako familiak. Kartxutxo parean.
- 3124. Nuala elkarte. Kala loradenda
- 3124. Elgoibar BHI, Meka, Herri Eskola, IMH eta Haur Eskolak. Gabi parean
- 3125. Kimetz elkarte. Kastrillejo estankoa
- 3125. Elgoibarko Udala. Armueta harategian
- 3126. Ideko S.Coop. Altzolatarren dorretxea
- 3126. Danobat S.Coop. Jai-Alai taberna
- 3127. Elgoibarko EH Bildu. Gorbea taberna
- 3127. Elgoibarko Izarra. Eroski parean
- 3128. Sua Training Center. Burdinezko zubia
- 3129. Alcorta Forging Group. Olasoko errodonda
- 3130. Txankakua merkatari elkarte. Sigmako autobus geltokia
- 3131. San Lazaro egoitza. Gaiundu

## BARTZELONA

## Korrikaren harira kontzertua eman du Xaribari taldeak Bartzelonan

Kontzertuak berak beste edo gehiago bete ditu taldekideak Bartzelonako euskal komunitatearen parte sentitu izanak

**A.A. ELGOIBAR**

Euskal Herriko mugak ere zeharkatzen ditu Korrikak. 23. Korrikak lau kontinente eta 45 hiri hartu zituen, eta 24. Korrika hau ere zabalduta mundura. Gure gertuan, Bartzelonako da ezagunenetakoa bat, eta han parte hartzeko aukera izan dute asteburuan Elgoibarko Xaribari musika taldekoek. Taldeko ahotsa eta baxu jotzailea, Itxaso Alberdi, Bartzelonan ari da ikasten eta haren bitartez iritsi zitzaizkion gonbidapena, Eneko Etxanizek azaldu duenez. Talde berria da Xaribari, eta estreinakoz irten dira gure mugetatik kanpora kontzertua ematera, baina pozarren eta "bete-beteta" itzuli dira Bartzel-

lonatik. "Kontzertua izugarria izan zen, baina hango Euskal Etxeak antolatutako jai handiaren parte sentitzeak kontzertuak beste edo gehiago bete gaituela esango nuke. Oso ondo hartu gaitu Bartzelonako euskal komunitateak", esan du Etxanizek.

Egun osoko egitaraua antolatu zuen Euskal Etxeak Korrikaren harira. Korrika Txikia izan zuten goizean, eta Korrika ofiziala gero, 11:00etan, eta han ere parte hartu zuten elgoibartarrek. Passeis de Bornet Can Batlló espaziora bitartean (La Bordeta auzoa) osatu zuten ibilbidea eta, bidean, dantzarako eta castellersak osatzeko geldialdiak ere egin zituzten. Ha-

ritz Euskal Dantzari Taldekoa izanda, probestu zuen aukera dantzarako Etxanizek berak ere. Ondoren, herri bazkarian parte hartu zuten, bai eta bazkaloste musikatuan ere, harik eta soinu-probak egiteko ordua iritsi arte. Iluntzean hasi zituzten kontzertuak. Hiru euskal talde gonbidatu zituzten Euskal Etxekoek: Ezinesan, Meison eta Xaribari, eta oholtzara igotzen azkenak izan ziren elgoibartarrak. Aretoaren beraren ezau-garriek, soinu ekipoak eta kontzertura batu zen jendetzak harrিতuta utzi zuten Etxaniz. Can Batllón jo zuten, autogestioan oinarritzen den espazio kultural eta sozialean, garai batean izen bereko ehun fabri-



Xaribari taldekoak, Bartzelonan. KORRIKA

ka izan zen lekuan eta, 350 bat lagunentzako lekua izan arren, jende askok kanpoan gelditu behar izan zuen, leku faltagatik. "Horixe izan zen pena. Hiru taldeotakook komentatu genuen

kontu bera. Euskal Herrikeri bertatik ere jende asko joan zen Bartzelonara asteburuan, eta han bertakoak eta hemendik joandako asko gelditu ziren kanpoan, sartu ezinda".

## SORALUZE

## 26 eragiletako ordezkariak erabiliko dute eskuz esku Korrikaren lekukoa Soraluzen

20:30 aldera iritsiko da Korrika, Elgoibartik, eta Eibarrerantz egingo du gero

**Ainara Argoitia** DEBABARRENA

20:30 aldera iritsiko da Korrika bihar Soraluzera, Elgoibartik, eta ez du inor hotz harapatuko; izan ere, Korrikarako girotze ekitaldi ugari egin dituzte azken egunotan herrian, Korrika batzordeak antolatuta. Domekatik atzo arte, Ekaintxou artistaren clown ikuski-zuna, Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa, herriko pilotarien partidak eta bertso-poteoa izan dituzte, eta gaurko, ostirala, Korrika Txikia, askotariko tailerrak, buruhandien eta buruarinen kalejira, Mugi Boogie disko-jarzailearen saioa eta Komedia Gaua daude iragarrita. 11:00etan hasiko dute Korrika Txikia eskola-umeek, eta arratsaldean izango dira gainerako ekitaldiak, 16:30ean hasita. Komedia Gaua, berriz, 19:30ean izango da, Gaztetxean. Jone Bengoa, Lander Varona, Asier K eta Beñat Iturbe artistak arituko dira bakarriketan, umoretik.

Eta bihar, zapatua, zapatilak jantzi eta Korrikara batuko dira soraluzetarrak. Embalajes Ansola enpresa parean

hartuko diete lekukoa soraluzetarrek eibartarrei, eta 26 eragiletako ordezkariak eskuz esku erabiliko dute gero herrian barrena, harik eta hartutako leku hartatik gertu, Unamuno tailerraren parean, berriro ere eibartarrei itzuliko dieten arte. Ez pentsa, hala ere, korrika egitera mugatuko direnik bihar Soraluzen. 13:00etan, Eibarko Latuna Bando txarangak girotuko ditu kaleak. Korrika agurtu osterrako, berriz, Alarma Morea taldearen kontzertua dago iragarrita.

Bost emakumek osatutako euskarazko rumba taldea da Alarma Morea, 2019an Zumarragan sortua. Rumba flamenkoa egiten dute, bereziki, baina bestelako erritmoak ere txertatzen dituzte, fusio alternatiboari hegoak emanez. Taldekideek esana dute borroka feminista eta emakumeen ahalduntzea dituztela taldearen zutabe nagusiak, eta genero zapalkuntzari kontra egiteko sortzen dutela. Asmo horrekin landutakoak dira hitzak, melodiak, bai eta gorputz-adierazpena bera ere.

### Lekuko hartzeak

- **3136. Soraluzera bidean:** Soraluze Futbol Taldea, Marras Irristaketa Taldea eta SoraGazteak errubi taldea.
- **Alkideban:** Soraluzeko Pilota Elkarte eta Gure Esku Dago.
- **Elesan:** Keixeta guraso elkarte eta Soraluze BHI institutua.
- **Gabolats 29an:** Soraluzeko musika eskola, BertSora bertso eskola eta Ezoziko Ama abesbatza.
- **Bidegorri parean:** AEK, Urrats dantza taldea eta Pii-Pilean elkarte.
- **Santa Ana 22an:** Atxolin guraso elkarte, Plaentxi Eskola, Itxaropena erretiratuen elkarte eta Katamarran haur txokoa.
- **Gabolats behean:** Sortu, Bildu, Soraluzeko Udala eta EAJ.
- **Elesan:** GOL, LAB eta Bizikale merkatarien elkarte.
- **Unamuno parean:** Harrera elkarte eta Arrano elkarte.



Pii-Pilean Euskaltzaleen Elkarteak. PII-PILEAN



Plaentxi Eskolakoak. ESKOLA



Soraluze BHI institutukoak. UTZITAKOIA

## MENDARO

## Korrika ofizialaren faltan, Korrika Txikiarekin konformatuko dira Mendaron

11:15ean hasiko dute gaur, ostirala, Korrika Txikia, ikastetxe paretik

**A.A.** DEBABARRENA

Beti ezin da, eta aurten ez da tokatu. 24. Korrika ez da Mendarotik igaroko, baina haren oihartzuna iritsiko da. Asteazkenean Deban batu ziren mendarotar asko Korrikara, eta izango da bihar asmo berarekin Elgoibarrera joango denik ere, baina gaur, nahi duenak Korrika Txikiarekin gozatzeko aukera izango du herrian bertan. Mendaro ikastolak antolatu du Korrika Txikia, Arno guraso elkartearen eta Udalaren laguntzarekin, eta euririk ezean,

behintzat, kalera aterako dute eskola-umeek euskararen aldeko aldarria.

09:00etan hasiko dituzte Korrikarako girotze jarduerak eskolan. Korrika zuzenean non dabilen ikusiko dute, eta dantzan egingo dute, Pello Reparazek 24. Korrikarako sortu duen kanturekin. Ondoren, duela bi urteko Korrika Txikiak irudiak ikusiko dituzte, eta 10:00etan Trinitatera igoko dira joaldunen atzetik, bertsoetan egitera. 10:30etik 11:00ak arteko tartean mokadutxoa egingo dute, inda-

rrak hartzeko. Korrika Txikia 11:15ean abiatuko dute LH-6koek, ikastetxetik, eta herriko hainbat gunetan zain izango dituzte ikaskide gazteagoak, lekukoa hartzeko. Trenbide kalean hartuko dute LH-5kekoek, zubipean, eta San Agustin kultur gune parean gehituko zaizkie gero LH-4koak. LH-3koak txaleten parean egongo dira zain-zain, lekukoa hartu eta tropelera batzeko, eta Nartxixo aurrera arte eramango dute lekukoa; han LH-2koei emango diete. Udaletxe atzetik igaro eta far-



Mendaroko bi ume, lekukoa eskuan dutela, 2024ko Korrika Txikian. A. ARGOITIA

mazia parean emango diete haiek LH-1koei, eta Coviran denda parean gehituko zaizkie gero 5 urtekoak. Ikastolan bukatuko dute, baina tren geltoki parean beste lekuko aldatze bat

egingo dute. 4 urtekoek eramango dute lekukoa ikastolako aldaparaino, eta han 3 urtekoek emango diete. Jolastokian bukatuko dira azkenak, 2 urtekoak eta Txokolo.



Ermuko lekuko eramaileak asteartean Kaltxango plazan egindako argazkian. MIKEL MADARIETA

## Lekuko hartzeak

Errotabarri Eskubaloia • Txindurri Dantza Taldea • Tenneco Automotive • Infreñu taberna • Eskoletako langileak • Gipuzkoako Urak • Artarrai Mendi Taldea • Alboka Musika Eskola • EH Bildu • Elkarte gastronomikoak (Arari, Errekena, Artape, Txalaparta, Malengo, Urdinak) • Ermuko Udala • Jubilatua • Emakumeen Asanblada • Zipriztintzen • Elkartasuna • Ermua Palestinarekin • Ermua CD • Euskal Birusa • Bertso Eskola • EAJ-PNV • Anaitasuna Ikastolako Guraso Elkarte • Berbalagunak • Udal Kiroldegia • Ermua BHI • Herri Muga • Errealzaleak eta Ermuko Merkataria eta Ostalarien Elkarte.

## ERMUA

# Eguna ilunduta iritsiko da bihar 24. Korrika Ermura, Eibartik, 22:11 alderako

Mallabira bidean herriko 26 eragiletako ordezkariak hartuko dute lekukoa

**Ainara Argoitia.** DEBABARRENA

Eibartik iritsiko da 24. Korrika Ermura, bihar, zapatua, 22:11 aldera. Eguna ilunduta sartuko da herrian AEKren furgoneta, atzetik lekuko-eramaileak eta tropela dituela, eta argituko ditu Ermuko kaleak, bai eta euskaltzale askoren bihotzak ere. Bihar izango da hori, baina. Gaur, bezpera, Korrika Txikia egingo

dute herriko ikastetxeetako eskola-umeek, 15:15ean hasita, eta hura amaitutakoan txokolate beroa dastatzeko aukera izango dute, disko-festara joan aurretik. 16:00etarako iragarri dituzte bata zein bestea. Pailazoak gustuko dituenak ere aukera ederra izango du gaur, Ermuan. Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore pailazoen *Zerua lapurtu dute* obra-

ren bi emanaldi egingo dituzte gaur Herriko Antzokian, Udalak antolatuta: bata 17:00etan eta bestea 19:00etan. Eta bigarren saioa hasten den ordu berean Institutuko disko-jartzaileen festa hasiko da.

### Bihar da egun handia

Eskubaloi taldekoek, Txindurri dantza taldekoek eta Tenneco

Automotive enpresakoek ekarriko dute 24. Korrikaren lekukoa herrira. 22:11 alderako espero dute Ermuan, eta eskuz esku erabiliko dute gero herriko hogeita hiru eragiletako ordezkariak, harik eta 22:40 aldera Mallabian sartuko den arte. Baina hori baino gehiago izango da biharko eguna Ermuan. Goizean, Txindurri dantza taldekoek plaza-dantza ikastaroa emango dute 11:30etik 13:00etara bitartean, eta 13:00etarako *Ermuan Kantuan* musikatua iragarri dute Gazte Asanbladakoek eta Euskal Birusa elkarte-koek. Ondoren, *Egunean Behin Ermuan* jokoan parte hartu ahal izango du hala nahi duenak, elizpean, eta 19:00etan txosna

zabalduko dute Ermuko Txosnagunekoek. Alboka musika eskolako txaranga ere ibiliko da kalean, Korrikarako giroa berotzen. Korrika agurtu ondorenerako, berriz, Gauargi taldearekin erromeria dute lotuta, 23:00etatik 00:30era.

## MALLABIA

# Lau eguneko egitaraua antolatu dute Mallabian, Korrikaren harira

22:40 aldera iritsiko da bihar Korrika Mallabira, eta Areition agurtuko dute



Mallabiko lekuko eramaileak, asteartean, Kontzejuzar parean. MIKEL MADARIETA

**A.A.** DEBABARRENA

Gaur arratsaldean Korrika Txikia eta bihar gauean Korrika ofiziala izango dituzte

Mallabian, eta, bien harira, ekitaldi-sorta ugaria, lau egunean banatuta -aurrez ere eginak dituzte beste ekintza ba-

tzuk, zazpi eguneko egitaraua antolatua baitzuten-. 15:00etan hasiko dute, gaur, Korrika Txikia, eta 16:00etarako txo-

kolate dastaketa dute iragarrita. Arratsaldean, berriz, 18:30etik 20:00etara erromeria izango dute herrian, Gauargi taldekoekin, Mallabiko eskolakoek eta guraso elkarte-koek antolatuta. Biharko ere antolatu dituzte ekintzak Zaparrada kultur elkarte-koek eta Mallabiko Korrika batzordekoek: hasteko, 17:30ean, talo ikastaroa egingo dute, eta ondoren, 19:00etan hasita, trikiti-poteoa, Joanes Illarregi eta Eneritz Artetxe bertsolariekin. Korrikarako berotze jarduerak izango dira denak, bihar, 22:40 aldera iritsiko baita 24. Korrika Mallabira, Ermutik. Hemezortzi talde edo eragilek hartuko dute lekukoa.

### Domekako eta asteleheneko egitaraua

AD Mallabia Futbol Taldeak multikirol saioa, hamabietakoa, euskarazko film proiektzioa eta bingoa antolatu ditu biharko. Frontoian egingo dute multikirol saioa, 11:00etan hasita, eta 12:00etako mokadua erekin

## Lekuko hartzeak

AEKko Ibiltariak • EH Bildu • Pelota Eskola • Biharko Izarrak • Nahikari Emakumeen Elkarte • Askalde • EAJ-PNV • Mallabiko Udala • Jubilatua • Eskola eta eskolako guraso elkarte • Gazte Alai Dantza Taldea • Mendibil Abesbatza • Zazpi Pago • Mallabia FT • Zaparrada Kultur Elkarte • Rober Rodriguez eta Ane Arregi • Gazte Asanblada eta Orbea.

amaituko dute goiz parteko egitaraua. Arratsaldean, 16:00etan, euskarazko zinema emanaldia izango dute Kontzejuzarren. 17:30erako, berriz, bingoa dute iragarrita, eta, hura amaitzen denerako, mahai-jokoetan aritzeko saioa. Astelehenerako, hilaren 30erako, peto-joskintza antolatu dute. Korrikako petoekin poltsak egingo dituzte, Zurrutokin.

# Delituek behera egin dute Debabarrenean

Ertzaintzak emandako datuen arabera, 2025ean delituak, oro har, %4 gutxitu dira eskualdean, Gipuzkoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan ez bezala

**Egoitz Unamuno Loidi** DEBABARRENA Debabarreneko delitu kopuruak beheranzko joera hartu du 2025. urtean zehar. Ondorio horixe atera dute, Eibarko ertzain-etxean ia zko datuak aztertuta: 2025ean, guztira, 3.028 delitu penal erregistratu ziren Debabarrenean, 2024an zenbatutako 3.166 delituak baino %4 gutxiago. Jose Martin Zubiate ertzainburuaren esanetan, "jaitsiera, txikia izan arren, esanguratsua da, azken urteetako joera hausten duelako".

Iaz, Debabarrenean mila biza tanleko kriminalitate-tasa 34,36koa izan zen, eta kokatu zen Gipuzkoako batezbestekoaren (34,86) eta EAEkoaren (36,6) azpitik. Gainera, 2024arekin alderatuta bailaran tasak beherantz egin du (1,5), Gipuzkoan eta EAEn ez bezala.

## Prebentzio-lanaren "fruitua"

Ertzaintzako buruaren ustez, emaitza horiek prebentzio-lanaren emaitza dira. "Hemen egiten dugun prebentzio-lana ona da... Ertzaintzaren lana, udaltzaingoek egin dutena, hor egotea, kontrolak, presentzia, prebentzio-plan espezifikoak... Herritarren segurtasun sentimenduan eragin zuzena duten delitu asko gutxitu egin dira, eta hori egindako lanaren fruitua da", azaldu du.

Zubiatek esplikatatu duenez, pandemian eta osteko urteetan delituek "nabarmen" egin zuten gora, baina 2025ean "egonkortze eta jaitsiera fase batean" sartu gara. Haren iritziz, lorpen horren gakoetako bat prebentzio-plan espezifikoak izan dira: "Besteak beste, duela bi urte abian jarri genuen arma zurien aurkako plangintza berezia, jai eta aste-buruetan ezartzen duguna".

Delitu moten joerei erreparatuta, ertzainburuak hiru delitu motaren bilakaeran jarri du arreta: ziberdelinkuentzia, etxebizitzetako lapurreta eta indarkeriazkoak.

Ziberdelinkuentziari dagokionez, pandemia garaian delitu mota horiek sekulako gorakada izan zuten, baina iaz, lehen aldiz, behera egin zuten. 2023an 801 kasu erregistratu zituzten eta

2025ean, berriz, 686. Ertzainburuaren arabera, "jendea ohitu egin da Internet bidezko erosketak egitera, eta neurri gehiago hartzen ditu".

Etxebizitzetako lapurreten kasuan ere, iaz murriztu egin zen delitu kopurua: 2024an 100 lapurreta erregistratu ziren eta 2025ean, 83. Zubietaren esanetan, datuak "ikaragarri onak" dira: "Gipuzkoan eta EAEko beste eskualde batzuetan arazo larria den bitartean, Debabarrenean jaitsi egin dira".

Azkenik, indarkeriaz egindako lapurreta hazi egin dira, "oso gutxi" bada ere; batez ere, mugikorrek eta diru-zorroak lapurtzea.

## Herri bakoitzak bere errealitatea

Eibarko ertzain-etxeak Debabarreneko zazpi herritako segurtasunaren ardura du: Mallabia, Ermua, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku – Soraluze Bergarako komisariaren ardurapean dago-. Herri bakoitzak bere berezitasunak ditu eta Zubiatek horien berri eman du.

Eibar da, tamainagatik, eskualdean delitu kopuru handiena biltzen dituen herria. 2025ean, gainerako herrietan ez bezala, Eibarren delitu mota batzuk hazi egin ziren, "oso gutxi" bada ere; esaterako, lesio eta indarkeriazko delituak eta espazio itxietan egindako lapurreta.

Ermuaren kasuan, datuak "onak" izan dira. 2024an gora

## "Jaitsiera esanguratsua da, azken urteetako joera hausten duelako"

JOSE MARTIN ZUBIATE AZPIRI, ERTZAINBURUA



Ertzainak, Eibarko Untzaga plazan. EGOITZ UNAMUNO

egin bazuten ere, 2025ean jaitsi egin ziren. Zubiaterekin ustez, jaitsiera hori ekarri duen faktore gakoetako bat udalerrian ezarri dituzten segurtasun-kamerak izan dira. "Kamerek delitugileari beldurra edo errespetua ematen diote", azaldu du.

Elgoibarren datuen joera orokorra beheranzkoa da. Ertzaintzak arreta berezia jarri du gaueko borroak eta arma zurien erabilera saihesteko, eta "Udal-tzaingoarekin koordinatutako plangintzek emaitza onak eman dituzte".

Deban eta Mutriku, kostaldeko herriak izanda, delituek lotura estua dute jaietako eta udako sasoiarekin. Iaz, Deban, nahi gabeko homizidio baten inguruko ikerketa esanguratsu bat izan zuten, baina gainerakoan datuak "onak" izan ziren, baita Mutriku ere, delitu penalek gora egin bazuten ere, jaietan izandako gertakari puntualengatik.

Mendaron delituak jaitsi egin ziren 2025ean, eta azken urteetan "erronka nagusia" ospitale inguruko segurtasuna eta apartakalekuen kudeaketa dira.

Mallabian delitu kopurua osoa txikia izan zen, baina iaz hazi egin ziren baserrietako lapurreta. "Badira talde ibiltari batzuk Bizkai aldetik etortzen direnak baserrietan lapurretan egitera. Badakigu zein diren, eta haiek kontrolatzen ahalegintzen gara", azaldu du Zubiatek.

## Genero eta belaunaldien arteko indarkeria

Ertzainburuak irakurketa berezitua egin du genero indarkeria delituen inguruan. Datuek delitu kopurua hazi egin dela erakusten duten arren, ertzainburuak azaldu duenez igoera horrek zerikusia du lege aldaketarekin: "Gaur egun, larritasun maila guztietako lesioak hartzen dira kontuan. Horrek esan nahi du sistema hobeto

ari dela detektatzen lehen ezkutuan geratzen ziren hainbat kasu". Gaur egun, Eibarko ertzain-etxean genero indarkeriarekin lotutako 237 espediente dituzte martxan, eta horietatik 184 babes neurriak dituzte aktibatuta. "Orain lanik handiena biktimei behar duten segurtasuna eta arreta bermatzen daukagu", adierazi du.

Azkenik, ertzainburuak ohartarazi duenez, badago azken urteetan "dezente" hazten ari den beste delitu mota bat: seme-alaba gazteek gurasoei egindakoa. "Gainera, orain arte ez bezala, gazteen adinak 14 urtetik behera egin du. Zerbait gaizki egiten dihardugu arlo honetan", adierazi du, kezkatuta.

## "Dezente" hazi dira seme-alabek gurasoei egindako indarkeria-delituek

## Delituen bilakaera: 2024-2025

ITURRIA: EIBARKO ERTZAIN-ETXEA (2025EKO JARDUERA KRIMINALAREN BALANTZEA)

| Delitu mota   | 2024   | 2025   | Bilakaera |
|---|--------|--------|-----------|
| <b>Delitu penalak, guztira</b>                      | 3.166  | 3.028  | -%4,36    |
| <b>Ziberdelituak</b>                                | 729    | 686    | -%5,90    |
| <b>Delitu penalak (ziberdelitu gabe)</b>            | 2.437  | 2.342  | -%3,90    |
| <b>Kriminalitate tasa (ziberdelituak barne)</b>     | %46,51 | %44,43 | -%2,08    |
| <b>Lapurreta etxebizitzetan</b>                     | 100    | 83     | -%17,00   |
| <b>Lapurreta espazio itxietan (dendak eta abar)</b> | 129    | 107    | -%17,05   |
| <b>Lapurreta enpresetan</b>                         | 16     | 10     | -%37,50   |
| <b>Genero-indarkeria</b>                            | 152    | 156    | +%2,63    |

## Apirilaren 10etik 30era bitartean egingo dute 'Debabarrena Gourmet' ekimen gastronomikoa

Eskualdeko zazpi jatetxek dastatze-menuak emango dituzte, 65 euroan

**Izaro Aulestiarte** DEBABARRENA

Hirugarren edizioa du aurten *Debabarrena Gourmet* ekimen gastronomikoa. Apirilaren 10etik 30era arte, eskualdeko zazpi jatetxek gourmet dastatze-menuak emango dituzte, 65 euroren truke. Jatetxe bakoitzak bere menua diseinatu du dagoeneko, eta oraintsu aurkeztu dute eskaintza osoa. Ireki dute, gainera, erreserbak egiteko epea.

Eibarko Baratze Gourmet, Elgoibarko Belaustegi, Debako Hiru Bistro eta Urgain, Mutrikuko Pikua, Mallabiko Trabakua Behekoa eta Itziarko Sa-

legi dira aurtengo egitasmoan parte hartuko duten jatetxeak. Eta honako hauek dira, hurrenez hurren, oraingo honetan jatetxe bakoitzeko menu berezia prestatuko duten sukaldariak: Unai Altuna, Josu Mugerza, Geaxi Uribarri, Nestor Pañuni, Luis Angel Alburquerque, Tasio Fernandez eta Imanol Mugerza. Zazpi partaide dira guztira, eta zazpi dira, halaber, menu bakoitzean eskainiko dituzten platerak: aperitiboa, hasierako bi plater, bi plater nagusi –arraina eta haragia– eta bi postre, hain zuzen. Ogia, kafea eta edaria ere sar-

tzen dira menuan, eta aurten Arabako Errioxako Valdelana Upategiaren Eder de Valdelana ardo zuria eta gorria izango dira aukeran.

Proposamen guztiak *debabarrenaturismo.com* webgunean daude ikusgai. Otorduz gozatu nahi dutenek jatetxera bertara aurrez deituz egin beharko dute erreserba, *Debabarrena Gourmet* menua dastatu nahi dutela jakinaraziz.

### Helburuak

Debabarrena Turismok antolatzen du egitasmoa, Debabarreneko Klub Gastronomikoa osatzen duten sukaldariekin elkarlanean. Eta, gogorarazi dutenez, hasierako balioei eta helburuei eusten diete sustatzaileek. Bada, sukaldarien eta bertako produktuen balioa nabarmendu nahi du *Debabarrena Gourmet*-ek, eta, bide batez, plater bakoitzaren sorkuntza-prozesua ezagutarazi ere bai. "Hirugarren edizio honetan ere gure sukaldarien talentua nabarmentzen eta eskualdeko gastronomia aberatsa erakusten jarraitu nahi dugu", nabarmendu du



Aurtengo dastatze-menuen arduratuko diren sukaldariak. DEBEGESA

Aitziber Cortazarrek, Debesako Garapen Jasangarriko eta Turismo Saileko arduradunak.

Horren harira, eta, esperientzia gastronomikoaz harago, ekimena Debabarrena ezagutzeko eta bertan egun batzuk igarotzeko eskaintza osagarri gisa aurkeztu dute, eta, besteak beste, bisita gidatuekin eta inguruak ezagutzeko ibilaldiekin uztartzeko aukera dagoela gogorarazi.

Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskadi Gastronomikaren babesarekin badu

"gastronomia eta turismo esperientzialaren zaleentzat ezinbesteko proposamen" bihurtu den egitasmoak.

### Zozketa

Aurten, berrikuntza gisa, Debabarrena Turismoren eta Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidearen arteko lankidetzari esker, *Debabarrena Gourmet* menua dastatzen dutenen artean zozketa berezi bat egingo dute: bi pertsonentzako 20 ardo-dastatze eta bi pertsonentzako 5 bisita gidatu Euskal Kostaldeko Geoparkera (2026ko urria baino lehen erabiltzeko).

## Txirristaka bertsopaper lehiaketa antolatu dute Mendaroko Udalak eta In Leikek

Maiatzaren 22ra arteko epea dago lanak lehiaketara aurkezteko

**Ainara Argoitia** MENDARO

Debabarreneko gazteen artean bertsolaritza eta bertso jarrien idazketa sustatzeko helburuarekin antolatu dute Txirristaka bertsopaper lehiaketa Mendaroko Udalak eta In Leike kultur elkarteak. Azkeneko bi edizioetan bezala, hiru kategoriatan bereizi dituzte, eta kategoriatan bakoitzeko bina sari banatu dituzte. Maiatzaren 22ra arteko epea dago bertsopaperak aurkezteko, eta bi bide zehaztu dituzte horretarako: Mendaroko Udaleko webgunean argitaratutako galdetegiaren bitartez *mendaro.eus* edota postaz helbide honetara bidalita lanak: Mendaroko Udala. Herriko Enparantza 1, Garagartza, 20850, Mendaro. Epaimahaia hiru bertsolarik osatuko dute, Amaia Agirrek, Mikel Arrillagak eta Irupe Ba-

sagoitik, eta sari banaketa ekitaldia ekainaren 19an egingo dute, udaletxean.

### A kategoria

Debabarreneko egileek bakarrik parte hartu ahal izango dute kategoriatan horretan, 2012an edo ondoren jaiotakoek, eta gutxienez bi bertso eta gehienez lau aurkeztu beharko dituzte. A kategoriarako bi sari daude aurreikusita: 100 euroko kultura-bonua irabazlearentzat eta 50 euroko kultura-bonua bigarrenarentzat.

### B kategoria


Euskal Herri osoko egileek parte hartu ahal izango dute kategoriatan horretan, betiere 2008 eta 2011. urteen artean jaiotakoak baldin badira –biak barne–. Adin tarte horretakoek gutxienez lau bertso sortu beharko dituzte,

eta gehienez zortzi. 200 euroko txeketa irabaziko du txapeldunak eta 150 eurokoa txapeldunordeak.

### C kategoria. Kategoriatan nagusia.

Euskal Herri osoko egileek parte hartu ahal izango dute, 2007an edo lehenago jaiotakoek. Gutxienez zortzi bertso osatu beharko dituzte, eta gehienez hamabi, eta bertsoek nolabaiteko batasun bat izan beharko dute elkarren artean. C kategorian ere bi sari banatu dituzte: 1.000 euroko saria izango du irabazleak eta 500 eurokoa txapeldunordeak. Dirutan emango dituzten sariei PFEZari dagokion atxikipena aplikatuko diete.

Aurkeztutako lan guztiek gai eta neurri libre izango dute, euskaraz idatzita egon beharko dute, eta jatorrizkoak eta beste inon argitaratu gabek izan



Txirristaka goguan, gaurkuak kantuan bertso saioan egindako argazkia.

Txirristakaren bertsopaper bat, eta atzean Andoni Egañaren silueta. ION URBIETA

beharko dute. Antolatzaileek nabarmendu dute ezinbestekoa izango dela doinua zehaztea, eta lanek ezinbestean bete beharko dituztela oinarritzko kalitate iriz-

ptideak. Kategoriatan guztietan sariren bat banatu gabe laga ahal izango du epaimahaia, lanek behar adinako kalitate ez dutela uste badu.

## NIRE USTEZ

**Egun optimistak,  
egun pesimistak****ANE ASTIAZARAN**  
ITZULTZAILEA

Gure gorputzetan zapalkuntzaren bat jasaten dugunok ohituta gaude egun optimistak eta egun pesimistak izatera, egoera ez da aldatzen, baina gure aldarteak goitik behera eraldatzen du errealitatearen pertzepzioa. Atzo euskara hiltzorian zegoelakoan, eta martxoaren 19tik hona badirudi oraina ez ezik etorkizuna ere baduela euskarak.

Emozioa, oilo-ipurdia, indarra, malkotxo bat... ederra da kanpoan egonda eguneroko *scroll*-a *Korrika zuzenean* ikusteagatik aldatzea. Nire ikasleek, Korrika non dabilen baino gehiago, Youtubeko kanalean zenbat ikusle dauden galdetzen didate egunero, ezin sinetsi astelehen goiz batez bi mila pertsonatik gora egon daitezkeela *horri* begira.

Agian, euskara bizitzeko modu bat da, zerbaiten parte gabela sentitzekoa, gure eguneroko erdi-monotonoetan euforia sartzekoa, eta nahiz eta gutako askok euskara zentroan jartzeko aukera dugun –eta gehiegitan horretarako hautu kontzientea egiten dugun–, ezin dugu ahaztu salbuespen-egoera optimista dela egun hauen bueltan gertatzen dena.

Euforia optimista honetan hegemonia txiki bat lortzen du Korrikak –eta, ondorioz, euskarak–, irudipen moduko bat, ia hizkuntza eskubideak eta pribilegioak nahastera garamatzana. Horren adibide da Errenteriako OPEaren kasuan CCOOek erakutsitako euskarafobia eta euskarari egindako eraso kontzientek, eta, aldi berean, autokritikatik urrun, Korrikan parte hartzeko izan zuen hasierako asmoa.

Euskarak bultzada handia behar du, baina ez al dago horren aurretik koherentzia eta euskara propaganda moduan ez erabiltzea? Lekukoa eramatea edo publikoki euskararen aldeko jarrera erakustea ez dira bere horretan euskararen aldeko ekintzak.

Hegemonia txiki eta ametsetako hori gure alde erabiltzea da gakoa, egun optimistak luzatzea. Gure hizkuntza eskubideak urratzen dituztenen itzalean bizitzen ikasi behar izan dugula, une oro geure burua defendatzen, oldarraldien eta erasoen aurka, beti aurka. Behingoz espazio publikoa geureganatzen dugun egun hauek zerbait irakasten badigute, politikoki zuzena den horretatik haratago joan, eta lurraldetasuna eta harrotasuna erdigunean jartzea da. Ez dakit gero zer gertatuko den, baina optimismo honi domekara arte eutsiko diogu, ezta?

## GUTUNAK

**Korrikaren harira,  
DGAtik****DEBAKO GAZTE ASANBLADA**  
DEBA

Bi urtean behin bezala, aurten ere Euskal Herria zeharkatzen dabil Korrika; pausoz pauso, euskararen aldeko oihuak zabalduz. Asteazkenean pasa zen Debatik, eta bertan izan ginenean ere; ezinbestekoa iruditzen baitzaigu euskararen aldeko ekimen honetan gure ekarpena egitea.

Hala ere, Deban Korrikaren antolakuntza prozesuan ibili garenok batere gustatu ez zaigun zerbait ikusi dugu aurten. Udalak eta Diputazioak, beren botere eta pribilegioak aprobetxatuz, antolakuntzan parte hartu duten herriko eragileen kilometroak herritik kanpo utzi dituzte, eta beren kilometroak herri erdian jarri.

Aipatzekoa da horrelako ekimenak zein aproposak diren instituzio, alderdi politiko eta enpresa askorentzat, haien aurpegi zuriketarako. Izan ere, askotan ikusi ditugu euskararen aldeko neurririk hartzen ez dutenak lekukoa eramaten. Honetaz hitz egiten hasita, pozik hartu dugu eta gogoz txalotzen dugu CCOO Korrikatik kanpo gelditu izana.

Asteazkenean itzuliz, pozgarria izan zen hainbeste jende ikustea Korrikan parte hartzen. Debako GKS, Goaz Antzerki Taldea eta Ipuin Kontalariekin batera, gazte

blokea osatu genuen, eta aldarriz bete genuen ekimena, Artzabalgo dorretik aurrera.

Jarrai dezagun euskaraz borrokatzen. Iraultzak soilik salba dezake euskara!

**Espazio publikoen  
erabilera  
pribatuaz. Guass  
aparkalekuaren  
kasua****EH BILDU**  
ELGOIBAR

Urtero, Euskal Herriko Itzulia eta Emakumeen Bira kirol probetarako Guasseko aparkalekua okupatzen da egun batzuetan, eta urtero metatzen dira aparkalekuaren ohiko erabiltzaile herritarren kezak.

EH Bilduk lagapenaren baldintzen inguruan galdetu ondoren, Udal Gobernuak (EAJ-PSE) lagapena herriko hotel bati doan lagatzen zitzaiola erantzun zuen, ostatuko bezero pribatuek erabiltzeko. Baldintza bakarra: bukaeran garbitzea.

Baimen horiek, espazio publiko bat jarduera pribatu baten erabilerarako doan lagatzean, herritarrek erdigunean aparkatzeko dituzten aukeren mugatzea dakarte, ehunka herritar kaltetuz.

Horrek interes partikularra herritarrenaren ginetik jartzen du, inolako tasa edo kontraprestaziorik ezarri gabe. Ez da berdin gertatzen, logikoki, espazio publikoaren beste erabilera pribatuekin.

Eta, horregatik, EH Bilduk eskaera formal bat egin du

ostatu horrek aurten egindako eskaerari adierazi zaigun moduan baimenik ez emateko eskatuz.

Ez dugu, oraingoz, erantzunik jaso.

**Oharra****BARRENA**  
DEBABARRENA

Aste Santuko oporraldia dela eta, apirilaren 3an eta 10ean ez dugu BARRENAren paperezko ediziorik kaleratuko. Hurrengo zenbakia, beraz, apirilaren 17an jasoko duzue. Bitartean, *barrena.eus* atarian topatuko duzue informazioa.

**Barrena**  
DEBABARRENEKO  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea**  
Barrena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Aita Agirre plaza, 3  
20870 Elgoibar  
[barrena@barrena.eus](mailto:barrena@barrena.eus)

**Lehendakaria**  
Gaizka Azkarate.  
**Zuzendari nagusia**  
Egoitz Unamuno.  
**Eduki arduraduna**  
Ainara Argoitia.

**Erredakzio batzardea**  
Ainara Argoitia, Ubane Madera,  
Ainhoa Andonegi, Dorleta Vidal,  
Izaro Aulestiarde.  
**Kazetariak**  
Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi,  
Alex Turillas, Ander Gomez,  
Asier Orbea, Dorleta Vidal,  
Egoitz Unamuno, Izaro Aulestiarde,  
Nerea Bedialauneta,  
Ubane Madera.  
**Diseinu arduraduna**  
Oier Larreategi.  
**Zuzentzailea**  
Sergio Azkarate.  
**Kidetzak eta banaketa**  
Alex Turillas.  
**Maketazioa**  
Zalora Arnaiz, Oier Larreategi.  
**Publizitatea**  
Leire Rubio.

**HARPIDETZA**  
Elgoibar 20870  
Aita Agirre plaza, 3  
943 74 16 26  
[harpidetza@barrena.eus](mailto:harpidetza@barrena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Elgoibar 20870  
Aita Agirre plaza, 3  
943 74 16 26  
[publi@barrena.eus](mailto:publi@barrena.eus)

**DEBAKO EGOITZA**  
Deba 20820  
Ifar Kalea 12, behea  
943 19 13 83

**ELGOIBARKO EGOITZA**  
Elgoibar 20870  
Aita Agirre plaza, 3  
943 74 41 12

**ERMUKO EGOITZA**  
Ermua 48260  
Erdikokale 2, 1  
943 17 93 50

**SORALUZKO EGOITZA**  
Sorluze 20590  
Errabal 15, 1  
943 75 13 04

**Lege Gordailua:** LG D 993-2025  
**ISSN:** 3101-2647  
**Tirada:** 10.800 ale  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia

BARRENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

## LAGUNTZAILEAK

Debako  
UdalaElgoibarko  
UdalaErmuko  
UdalaMallabiko  
UdalaMendaroko  
UdalaMutrikuko  
UdalaSoraluzko  
Udala**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO**GIPUZKOA**  
Foru Aldundia**Bizkaiko Foru Aldundia**  
Diputación Foral de Bizkaia

# Zerbitzuen gida

Ezagutarazi zure zerbitzua  
Debabarreneko herrietan



**24 €  
Hilean**

24€ren truke, hileru zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARRENA astekarian!.



**Erakusleihoa**

BARRENA astekaria Debabarreneko erakusleihoko ikusienetakoa da.



**11.500 ale  
astero**

11.500 ale banatzen ditugu Debabarrenean zehar DOANI.



**ANIMALIAK**



**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak  
Kurutz-gain industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)

Jarri zure  
publizitatea



**KONPONKETAK**



**MEKANIKOAK**



TXAKURRENTZAKO BAINUA  
604 392 529  
[www.hankak.com](http://www.hankak.com)  
Zure txakurra etxean jaso  
eta garbi-garbi itzuliko dizugu.



**DEKORAZIOA**



**IGELTSERITZA**

**LADOSO KONPONKETAK**

- ✓ Leihoak
- ✓ Pertsianak
- ✓ Arotzeria metalikoa
- ✓ PVC arotzeria
- ✓ Eltxo-sareak

[ladosokonponketak@gmail.com](mailto:ladosokonponketak@gmail.com)  
Errosario kalea, 18, behea 943 247 659  
20870 Elgoibar 617 585 330

**SORALUZE MOTOR**  
Mendiola ind. 13  
Soraluze  
676 556 817 · 943 75 21 38




**AROTZEGIAK**

**KM design**  
Kiru Muntatak  
943 76 99 85  
[kirumuntatak@yahoo.es](mailto:kirumuntatak@yahoo.es) Pol. Amillaga 5  
[www.kmdesign.es](http://www.kmdesign.es) BERGARA



**IZAGUIRRE**  
Igeltseritza  
Eraikin berriak · Kalitatezko emaitza  
Erreformak · Era guztietako igeltsaritza  
50 urteko esperientzia · 610 638 913



**LEIHOAK**



**PINTURAK**

**BIENA S.L.**  
AROTZEGIA  
Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
[www.biena.eus](http://www.biena.eus)  
[info@biena.eus](mailto:info@biena.eus)



**ELEKTRIZITATEA**



**ITURGINTZA**

**ODR**  
ATEAK ETA LEIHOAK  
Aluminio eta PVC arotzegia  
662 234 609  
[odriehioak@gmail.com](mailto:odriehioak@gmail.com)  
Sagar Erreka Kalea 2, 20590 SORALUZE  
Mota guztietako leihoak; salmenta eta konponketak.  
Ateak, leihoak, pertsianak, barandillak, eltxo-sareak  
eta toloak jartzen ditugu.

**BIOK**  
dekorazioa  
Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

**MAR**  
AROTZEGIA  
Olaso industriagunea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriamar@hotmail.com](mailto:carpinteriamar@hotmail.com)

**laibi 25 urte**  
Mendiola Industrialdea 13  
Soraluze  
Tel. 943 75 12 69  
[www.laibi.net](http://www.laibi.net)

**SANTANA**  
Igor Santana  
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.  
Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

Jarri zure  
publizitatea

**ION MURGIZU BAKAIKOA**  
PINTOREA  
arrunta  
dekoraziokoa  
industrialia  
Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

Zerbitzuen gidan agertu nahi izanez gero, deitu edo  
whatsapp-era idatzi hurrengo telefono zenbakira.

**688 769 657**



Aurkezpeneko argazki bat. N.G.

## Euskara eta kulturartekotasuna: euskara komunitate osoan sustatzeko

Euskara, aniztasuna eta herri-kohesiorako erronkak landu dituzte

### Ainhoa Andonegi

Hezkuntza Mahaiaren baitan sortu zen euskara eta kulturartekotasuna modu eraikitzailean lantzeko beharra, euskararen erabilera eta ulermena komunitate osoan sustatzeko. Proiektuaren diseinuan eta garapenean Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea aritu da, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin, baina ekimenaren talde eragilean beste hainbat taldek ere hartu dute parte; besteak beste, honako hauek: Udaleko Gazteria,

Hezkuntza eta Euskarako ordezkaritza politikoa eta teknikoak, Herri Eskola, Ikastola eta Institutuko zuzendaritzak, Ludoteka eta Gaztelekuko hezitzaileak, Atxutxiamaikako arduradunak, Musika Eskolako zuzendaritza eta gurasoen ordezkaritza. Martitzenean aurkeztu zuten egitasmoa Mondragon Unibertsitateko Karnele Perez eta Ane Urizar irakasleek, Aita Agirre kulturaguneko areto nagusian. Bilera irekia izan zen, baina aurkezpen soila baino gehiago, lan-saio gisa prestatu zuten ekitaldia. Iker-

ketan jaso dituzten hainbat datu eman zizkieten bertaratu ziren herritarrei, eta aurrera begira Elgoibar nola irudikatzen duten eta zer egiteko prest dauden ere landu zuten. Herriak eskaintzen dituen aukerak eta erronkak aztertu zituzten.

### Hainbat datu

Ikerketaren testuingurua kokatzeko hainbat datu eman zituzten: elgoibartarren %36,2k hitz egiten dute euskaraz herriko kaleetan; gehien, umeeak. Herri-tarren %61,6k gaztelaniaz hitz

egiten dute eta %2,2k beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituzte. Eustat-en 2021eko datuen arabera, Elgoibarko biztanleen artean %61,74 dira euskaldunak, baina, aldiz, etxean euskaraz hitz egiten dutenak %27 dira. Biztanleen %49k gaztelaniaz hitz egiten dute etxean, %19k bi hizkuntzak erabiltzen dituzte eta %4k beste hizkuntzaren bat erabiltzen dute etxean. Elgoibarraren bizi direnen jatorriari dagokionez, 2020ko udal erroldan jasotako datuak eman zituzten, eta, horren arabera, hogeita hamar etorkin jatorri nagusiak. 1.448 etorkin zeuden erroldatuta Elgoibarren, eta horietako 289 marokoarrak ziren (%20), Nikaraguakoak 232 (%16) eta boliviarrak 140 (%9,7).

### Helburuak eta kezak

Testuingurua aurkeztu ondoren, ikerketan zehar azaldu diren kezka nagusien berri eman zuten arduradunek. Besteak beste, aipatu zituzten euskararen erabileraren jaitsiera, familia atzeritarren parte-hartzea ekintzetan zein familia atzeritarren eta autoktonoen arteko harremana eta baita familia autoktono ez-euskaldunen parte-hartzea eta euskararekiko duten atxikimendua. Egoera horrekin lotuta, euskaraz bizitzea jarri dute helburu nagusi moduan, eta familia guztiekin komunikazioa giro abegikorrean bermatzea nahi dute, baita euskaraz ez dakitenekin ere. Azken batean, euskaldun-tasunetik kulturartekotasuna erai-ki nahi dute, eta horretarako estrategiak diseinatzeko aritu ziren martitzeneko lan-saioan.

### Kulturartekotasuna eta kulturartekotasuna

Bi kontzeptu horien arteko desberdintasunari erreparatu zioten;

izan ere, ez dira gauza bera. Kulturartekotasunak egoera adierazten du; bi kultura edo gehiagoko pertsonen presentzia fisikoa gizarte batean. Kulturartekotasunak, aldiz, elkartrukeari egiten dio erreferentzia, interdependentziari, eta bestearekin elkarrizketa dagoela adierazten du. Norabide bikoitzeko prozesua da, non autoktonoek eta etorkinek parte hartzen duten. Kulturartekotasuna kulturen arteko hezkuntza moduan definitu zuten.

Beste hainbat kontzeptu ere izan zituzten langai: immigrazioa, integrazioa, segregazioa, ekitatea... Azken batean, Elgoibar inklusiboagoa izateko oinarriak landu zituzten.

### Aukerak eta erronkak

Euskara eta kulturartekotasuna lantzeko Elgoibarren dauden aukerak eta erronkak aztertu zituzten aurkezpenaren ondoren, eta, horretarako, hainbat galdera proposatu zituzten arduradunek, gogoeta egiteko. Hasteko, seme-alabentzako nahi dituzten balioen gainean aritu ziren, eta familia autoktonoek galdetu zieten ea nola ikusten dituzten etorkinen seme-alabak. *Gizarte kohesionatua ala puzzlea?* Horixe izan zen azken lanketa; gizarte kohesionatuaren alde egin zuten, eta horretarako norbera zer egiteko prest dauden aztertu zuten.

**1.448 etorkin daude erroldatuta Elgoibarren; horietatik %20 marokoarrak dira**

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**LIEBHERR KGNSF 57VA03 HOZKAILUA**

**1099 €** **A** **A**

- 10 urteko bermea
- A etiketa, horiz
- No Frost
- Ukimen-pantaila

**MILARBIRE** Ubitarte, 11 - 943 741 487  
bire@milar.es  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

**PINTURA ETA DEKORAZIOA**

**CORDON VILARCHAO**

cordonvilarchao@telefonica.net  
San Roke, 7 - Olosope, 18, Pab. 25-26

**943 740 570 / 636 986 162**

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

943 740 704 - 639 047 337

Astelehenetik ostiralera:  
11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Jon Aranao  
Guillermo Torres

**Elgoibar Albaitaritza**

Erreklamazioak zehazki idatzita. Daturak onartzen dira.

**Barrena**

DEBARRERNEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

943 743 704  
688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea **BARRENA** astekarian edo **www.barrena.eus** webgunean

**NIRE USTEZ**

**(Elkar)bizitza**



**EDURNE IZAGIRRE**  
PSIKOLOGOA

Oso kezagarria iruditzen zaigu isolamendua, baina interakzio sozial mugatuak izatea eta pertsonen inguratzea konpainia al da? Norbere zaintza ekintza-plan bihurtu dugunetik, ekintza interesgarri/erakargarri/funtzional/ikusgarri egin eta bizi-kalitate hobea dugula sinetsi dugu. Baina gaua iristean, isiltasunean, zer agertzen da? Zenbateraino normalizatu dugu insomnia? Benetan asetzen gaitu bizi-planteamendu honek ala hustu egiten gaitu? Izaki sozialak

garela barneratzean badirudi ekintza sozialak direla beharrezkoak, baina gaizki ulertu dugu premisa. Izaki sozialak garela esatean, besteekiko hartu-emanen eraikitzen garela esan nahi du, eta horrek zerikusi handiagoa dauka pertsona horiekiko dugun lotura edo elkar-ulertzean, elkarrekin egingo dugunak baino. Neuretzat esanguratsua den norbaitekin denbora pasatzea lehenesten dudanean, ahal ditut bizi-neure inizatibaz biziko ez nituzkeen esperientziak, aberastasunerako eta hazkuntzarako bidea irekiz. Gustuko ditudan ekintzak burutzeko jendea bilatzen badut, aktibitate horretan

espezialista bihurtzeko bidea eraikitzen joango naiz, baina sozializaziorako gaitasunak ez dira garatuko. Sozializazioa beste pertsona batzuekin batera zerbait egitea baino gehiago da. Identifikazio edo konexio puntu bat dugun pertsonekin erlazionatzea eroso eta atsegina egiten zaigu, baina ezberdintasunen kudeaketan dator ikaskuntza eta aberastasuna. Badira mila konpatibilitate-froga, eta sinetsia dugu erabat beharrezkoa dela konpatibilitatea elkar-ulertzeko, baina non geratu zaigu kuriositatea? Noiz galdu dugu arrotza zaigunarekiko jakin-mina eta sortu zaigu defendatzeko beharra?

**KLIK**

**Donostia**



**NAGORE CANCIO**  
ARGAZKILARIA



Non itsasoak arnasa hartzen duen eta denbora gelditzen den, uhin bakoitzak arimak bakarrik ulertzen duen istorio bat kontatzen du.




**SEMAFOROA**

**Horma dotoretu egin daiteke**



"King-Kong zubiari buruzko kexa batean, herritar batek zioen zatarra geratu dela, eta pentsatzen aritu naiz hobetu egin daitekeela ingurune hura. Esate baterako, igogailuaren hormigoizko horma hartan egin daiteke grafiti polit bat, Ikastolan edo Santa Ana kalean egin zen modukoa. Leku aproposa da herriaren irudia saltzeko; izan ere, errepide hartan auto asko ibiltzen dira. Udalak kontuan hartu beharko luke, nire ustez".



**Ederra aurtengoa ere**



"Aurtengo jaialdia ere ederra izan da. Txalo bero bat eman nahi diet Inazio Bereziartua dantza eskolako irakasleei eta arduradunei. Segi horrela".

**Zabor-poltsa organikoen makinak ez dabilta ondo**



"Luzaroan zerbitzutik kanpo egon dira zabor-poltsa organikoen makinak, eta badirudi, azkenean, jarri dituztela martxan. Hala ere, arazoak eman dizkit King-Kong azpian dagoen makinak. Txartela pasatu dut, baina ez dira poltsak irten, eta txartela berriz pasatzean poltsak jasota baleude bezala agertzen da. Ez dakit gai hau Udalaren edo Mankomunitatearen ardurapekoa den, baina, jaso genuen gutunaren ostean, makinaren kontua hobeto zaindu beharko litzateke".

# "Salto kualitatibo bat eman dut obra honekin"

ZUHAITZ GURRUTXAGA UMORISTA

Escape Room antzeulanarekin igoko da Zuhaitz Gurrutxaga gaur, ostirala, Elgoibarko Herriko Antzokiko oholtzara

## Ainhoa Andonegi

Zuhaitz Gurrutxaga (Elgoibar, 1980) futbolari moduan egin zen ezagun, baina futbol kontuak aspaldikoak ditu dagoneko, eta kulturagintzan dihardu azken urteotan. Musikaria izan da, telebistako aurkezlea, bakarrizketa, aktorea eta abar. Oholtza gustuko du Gurrutxagak: gaur, *Escape room* antzeulanarekin iritsiko da Herriko Antzokira. 19:00etan hasiko da emanaldia, eta sarrerak eskuratzeko aukera dago oraindik, [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) webgunean edota txarteldegian bertan.

## Escape room antzezlana aurkeztuko duzue gaur, Elgoibarren. Zer da?

Komedia ero bat da. Lagunak diren bi bikote *escape room* gela batean sartzen dira, eta handik irteteko egin behar duten ahalginean oinarritzen da obraren trama nagusia. Bikoteentzat ezezagunak diren beste istorio batzuk ere nahastuko dira tartean, eta jolas simple bat izan behar zuena bilakatuko da elkar ezagutzeko egoera bat. Sorpresak eta disgustuak ere biziko dituzte protagonistek.

## Badirudi umorezko obrek hobeto funtzionatzen dutela antzokietan. Zer uste duzu?

Bai, izan daiteke. Obra oso atsegina da, eta jendeak barre egiten du. Oso dinamikoa da, eta ikuslea une oro sentituko da obraren barruan. Gauza asko pasatzen dira; oso erritmo bizia dauka.

## Zein da zure papera?

Obra profesional bat egiten dudana seigarren aldia da hau, eta orain arte beti izan naiz bigarren mailako protagonista, normala den moduan. Hasieratik ezin da protagonista nagusi izan, eta are gutxiago Joseba Apaolaza, Iker Galartza eta halako aktore handiak alboan izanda. Baina oraingoan salto kualitatibo bat eman dudala iruditzen zait, eta lan honetan besteetan baino erantzukizun handiagoa daukadala uste dut. Lau gara aktoreak, eta denok gara protagonistak maila berean.

Horrek motibatzen nau, eta gustura nabil.

## Futbolari izan zinen, eta, gaur egun, hainbat kultur diziplinatan ari zara. Dena zure kabuz ikasi duzu?

Hala da, bai. Horrek ez nau harro sentiarazten, baina intuizioz iritsi naiz honaino. Nahiago nuke formazio gehiago izango banu; badakit inoiz ez dela berandu ikasteko, baina aukerak iritsi direnean iritsi dira, modu arraroan, eta etorri diren moduan hartu ditut. Batzuk formatu egiten dira lehenengo eta gero egiten dute oholtzara salto; nik, aldiz, oholtza gainean ikasi dut dakidan guztia. Gogoan daukat lehenengo bakarrizketa egin nuenean ia ez nekiela bakarrizketa zer zen ere. Musikari nabilen orduan, eta abestien azalpenak ematen nituen kontzertuetan. Konturatu nintzen jendeak arreta gehiago jartzen zuela azalpen haietan abesten nuenean baino, eta horrela animatu nintzen bakarrizketa bat egitera. Lehenengo saiora 600 lagun etorri ziren! Izugarria! Gerora, antzerki baterako deitu zidaten, eta, nire zalantza guztiekin, aurrera egitea erabaki nuen. Gauza kurioso batekin ohartu naiz: futbolari nintzela, entrenamenduetan ondo ibiltzen nintzen, baina futbol zelaietan publikoaren aurrean presio gehiegi sentitzen nuen eta oso gaizki pasatzen nuen. Orain, alderantziz da; oholtzan eta publikoaren aurrean hazi egiten naiz. Publikoa irakurtzen ikasi

**"Formaziorik ez daukat, baina asko ikasi dut aktore handien ondoan atentzio apur bat jarrita"**

**"Primizia: apirilaren hasieran New Yorken estreinatuko dut nire bakarrizketa"**

dut, eta, askotan, publikoak berak esaten dit ondo ari naizen edo ez. Entrenamenduetako mutilla izatetik, oholtzako iza-tera pasatu naiz.

## Herriko Antzokiko oholtzara igoko zara gaur. Horrek are gehiago haziko zaitu ala, kontrara, beldur eszenikoa ematen dizu zure herrian antzezteak?

Oso topikoa da esango dudana eta aktore guztiek gauza bera esaten dute, baina, dudarik gabe, oso berezia da norbere herrian antzezteak. Kasu honetan, gainera, harro esan dezaket Elgoibarrera etortzen naizen bakoitzean publikoak oso ondo hartzen nauela. Esaten da ez dela erraza norbere herrian profeta izatea, baina Herriko Antzokian sentitzen dudana hunkigarria da. Aktore moduan baino gehiago, herriak pertsona moduan ondo hartzen nauela sentitzen dut, eta horrek poz handia ematen dit. Oso eskertuta nago.

## Formaziorik ez duzu egin, baina aktore handiak izan dituzu alboan. Gomendiorik emango zizuten.

Haien ondoan lan egitea sekulakoa izan da. Galartza, Apaolaza... euskal antzerkigintzako handiak dira, eta ni oso lasai irten izan naiz oholtzara haiekin. Formaziorik ez daukat, baina aktore handien ondoan, atentzio apur bat jarrita, asko ikasten da. Eta gomendioak eman izan dizkidate, jakina.

## Oholtzatik telebistara ere egingo duzu jauzi: Superra telesailako aktoreetako bat izango zara, berriro ere aktore handien ondoan.

Bai, hala da; nire lehenengo aldia izango da telebistarako aktore lanetan. Errespetu handia ematen zidan horrek, baina Galartza tartean egonda lasaitu egin nintzen, hark badakielako ni noraino iritsi naitekeen, eta badakizki nire mugak zein diren. Beraz, baietz esan nien. Urdu-ri joan nintzen grabaziora lehenengo egunean. Aitziber Garmendia, Anjel Alkain, Iker Galartza... Beste asko ere badaude, baina hiru horiek top dira, eta haiekin lan egiteak errespetua ematen zidan. Askorik ez sufritzea zen nire asmoa,



Zuhaitz Gurrutxaga. Z.G.

eta, azkenean, izugarri gozatu dut.

## Zein paper beteko duzu telesailan?

Ni ez naiz aktore handia. Paper zehatz batzuk defendatzen ditut, eta arduradunek ere hori bada-kite; beraz, nire tamainako papera eman didate. Supermerkatu txiki bateko jabeak dira Alkain eta Galartza, eta haien iloba da Garmendia. Parean supermerkatu handi bat zabalduko dute, eta hango gerentea naiz ni. Hor sortuko dira gure arteko eztabaidak.

## Horrez gain, aretoak betetzen segitzen duzu buruko gaixotasunari buruzko bakarrizketarekin.

Bai; ondo funtzionatzen ari da. Bakarrizketa oso pertsonala da, eta une batzuetan komedia baino gehiago drama dela esango nuke, baina publikoak ondo hartzen du. Primizia bat emango dizuet: apirilaren hasieran

New Yorken estreinatuko dut bakarrizketa. *Futbolistok*-en eta *Nortasun agiria*-ren arteko nahasketa bat prestatzen ari naiz, eta sei emanaldi lotu ditut Queens auzoko antzoki baterako. Gaztelaniaz egingo dut, baina hasi naiz testua ingelesera itzultzen, eta bakarrizketa ingelesez egitea izango da nire hurrengo erronka. Kontua da institutuko garaitik ez dudala ingelesa erabiltzen, eta oso herdoilduta daukat. Orain hasi naiz umore pixka bat egiten sare sozialetan ingelesez, hizkuntza praktikatzeko. Zorionez, memoria oso ona daukat: testuak buruz ikasten ditut eta gero bideoan botatzen ditut. Bakarrizketa ingelesez ikastea ez da erraza izango, baina saiatuko naiz. Ez da nire asmoa Broadwayn arrakasta izatea, baina gustatuko litzaidake saio-aren bat ingelesez egitea.

## Jolasa kalera aterako du gaur Atxutxiamaiaka aisialdi taldeak

**Ainhoa Andonegi**

Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiaka aisialdi taldeak prest dauka *Saretzen* egitasmoko martxoko programa. Martitzenean ekin zioten Familiaguneari, eta astebururako bi ekitaldi antolatu dituzte: gaur arratsaldean jolasa kalera aterako dute, eta, 16:30ean hasita, umeek Lekuederren hainbat jolas izango dituzte. Ekintza hori irekia eta doakoa da. Domekarako, berriz, *Istoria zaporetsuak* ekimena prestatu dute, familian egiteko. Ludotekan izango da, 16:30ean. Tailerraren prezioa 12 euro da –Elgoibarko Izarrako bazkideek,

10 euro–. Ume bakoitzak heldu batekin hartu beharko du parte. Izena emateko, *atxutxiamaiaka.eus* webgunean dagoen formularioa bete behar da.

**'Saretzen' egitasmoa**

Elgoibarko Izarra kultur elkar-tearen Atxutxiamaiaka aisialdi taldea beste etapa batean sartuta dago, eta aldaketa nagusia izan da egitetik eragitera pasatu direla. Horren barruan, *Saretzen* familia-programa jarri dute martxan, Udalarekin lan-kidetzan eta Kutxa Fundazioaren laguntzarekin. Helburua da 0 eta 5 urte arteko umeak dituzten



Jolasa kalera ekimena. ATXUTXIAMAIIKA.

familietan euskararen transmisioa eta erabilera sustatzea. Horretarako, familiei espazio seguru eta erosoak eskaini nahi dizkiete, euskaraz hitz egiteko eta haien arteko harremanak sendotzeko. Euskalduntasuna lantzea dute helburu; sentimendua, hain zuzen.

## Errenta aitorpena euskaraz egitera animatu nahi dituzte herritarrak

Apirilaren 4an hasiko da kanpaina, eta autolikidazio-proposamenak martxoaren 30etik egongo dira ikusgai

**Ainhoa Andonegi**

Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarra kultur elkarteak *Errenta aitorpena euskaraz!* izeneko ekimenarekin bat egin dute, herritarrak errenta aitorpena euskaraz egitera animatzeko.

**Euskarazko aitorpenak, gora**

Eragileek eman dituzten datuen arabera, euskaraz egiten diren errenta aitorpenen kopuruak gora egin du urtetik urtera: 2008an 514 lagunek egin zuten euskararen aldeko hautua errenta aitorpenean –%8,05–, eta 2020rako bikoiztu egin zen kopuru hori: 1.068 lagunek egin zuten orduan errenta aitorpena euskaraz; zergadunen %17,95ek, hain zuzen. 2024an, berriz, 1.199 elgoibartarrak egin zuten errenta aitorpena euskaraz –%19–, eta 2025ean, 1.288 lagunek –%20–.

Gipuzkoan, bestalde, 2025. urtean –2024ko ekitaldia– 83.818 zergadunek –familia unitateak– egin zuten errenta aitorpena euskaraz; hain zuzen ere, aitorpen guztien %20. Elgoibarko datuak, beraz, Gipuzkoako datuen parekoak dira.

Hiru bide daude aitorpena egiteko, eta guztietan erabil



Kanpainako kartela.

daiteke euskara: autolikidazio-proposamena telefonoz edo Internetez onartzean, aitorpena euskaraz egiteko nahia adierazi daiteke. Errenta mekanizatua egiten dutenek bulegoan laguntzen duen langileari aitorpena euskaraz egin nahi dutela adierazi beharko diote, eta gauza bera egin beharko dute aitorpena egiteko bankuan edo aholkularitza-bulego batean egiten dutenek. Azkenik, Foru Ogasunaren *Zergabidea* plataforman ere egin daiteke euskararen aldeko hautua.

## Stock azokako irabazleak

Txankakuako 23 bazkidek hartu zuten parte stock azokan, eta egun haietan elkarteko dendetan erosketak egin zituzten herritarren artean 100 euroko lau erosketa-bonu zozkatu zituzten. Honako hauek dira sarituak: Paola, Manu Sanchez, Ainhoa Uriguen eta Fabiola Ribera.



TXANKAKUA

## Bertoko zuhaitzak, bertoko lurretan



UDALA



UDALA

Zuhaitz Eguna ospatu zuten joan den astean Elgoibarren, eta herriko eskola-umeek bertako zuhaitz-espezieak landatu zituzten Idotorbeko lurretan. Elgoibarko Udalak antolatzen du ekimena, gazteen artean ingurumenarekiko kontzientzia eta naturare-

kiko errespetua sustatzeko, eta Ikastolako eta Herri Eskolako umeek hartzen dute parte. Udalak eskerrak eman dizkie parte-hartzaileei, baita egitasmoa antolatzen eta gidatzen lagundu duten irakasleei eta taldeei ere.



Aurkezpen ekitaldiaren irudi bat. IREKIA

## Fabrikazio aurreratuaren campusa jarriko du martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak

Berrikuntza eta prestakuntza industrialak sustatzea du helburu

### Ainhoa Andonegi

Gipuzkoako Foru Aldundiak fabrikazio aurreratuaren campusa jarriko du martxan, berrikuntza eta prestakuntza industrialak sustatzeko. Elgoibarko IMHren instalazioetan dagoen campusa 2026an zehar osatuz joango da, fabrikaziorako pentsatutako doitasunezko robotikako teknologiarik berri-zaileenaz hornitutako azpiegitura batekin. Espazio berri horrek jarraipena ematen dio Aldundiak urteetan zehar campusean egin duen apustuari. Apustu horrek hainbat laborategi ditu oinarri –Manufacturing, Digitalizazioa, Robotika, Fabrikazio Aditiboa eta Diseinua–, elkarren artean lotuak eta sinergikoak, industria-ingurune errealean prestakuntza aurreratu emateko eta irtenbide industrialak erakusteko, garatzeko, probatzeko eta baliozkotzeko sortuak. Gune horrek enpresen arteko lankidetzak irekia bultzatuko du, zentro teknologikoen, unibertsitateen eta Lanbide Heziketa-ren ekosistema indartsuarekin, eta industria sarearen lehia-kortasuna indartzen lagunduko

du. 1.250.000 euroko inbertsioa dakar espazio berri horrek.

### Danobaten 'dBOT' robota

IMHk fabrikaziorako doitasun handiko robotikari buruzko prestakuntzan aitzindari bihurtzeko aktibo nagusi bat izango du: Danobatek garatu eta fabrikatu duen *dBOT* doitasun-robota. Ohiko robotek baino hiru aldiz zehaztasun handiagoa eta hamar aldiz zurruntasun dinamiko handiagoa du, eta, ondorioz, ikasleei, enpresei eta profesionalei robotikan eta doitasun-fabrikazioan trebatzeko aukera ematen die.

Fabrikazio Campusean, bestalde, bost laborategi osagarri eta sinergiko daude: Manufacturing Lab, mekanizazioa, metrologia eta balidazio industrial baldintza errealean egiteko; Robot Lab, robotika indus-

triala, lankidetzakoa eta mugikorra, benetako ekoizpen inguruneetan aplikatzeko; Design Lab, diseinu aurreratu eta produktuen ingeniariak baliozkotze birtualarekin lantzeko; 3D Lab, fabrikazio gehigarria eta prototipoak egiteko, eta berrikuntza bizkortzeko; eta Digital Lab, datuak atzemateko eta ikusmen artifizialerako. Laborategi bakoitzak berrikuntza teknologikoa prestakuntza aurreratuarekin eta frogapenarekin uztartzen ditu, eta ikasleei eta profesionalei azken belaunaldiko industria-ingurunean zuzenean ikasteko eta esperimentatzeko aukera ematen die.


Aurkezpenean hauek izan ziren: Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusia, Jose Perez Berdud AFMko presidentea, Xabier Ortueta IMHko presidentea eta Xabier Alzaga Danobateko zuzendari nagusia. Jaione Ganzarain Eusko Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburordea, Unai Andueza Sustapen Ekonomikoko eta Proiektu Estrategikoetako diputatua eta Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkatea ere izan ziren bertan.

**Foru Aldundiak sustatutako espazio berriak 1.250.000 euroko inbertsioa ekarriko du**

## Hondakinen politika eraginkorragoa eskatu du EH Bilduk

Udal Gobernuak edukiontziko marroien gutxieneko erabilera zehaztu zuen, eta kopuru horretara iristen ez ziren herritarrei zaborraren tasan gainkarga bat ezarriko zirela ohartarazi zuen. Erabaki hori bertan behera laga dute aldi baterako, eta EH Bilduren ustez aldaketa horrek kudeaketa arazo bat laga du agerian. Era-

bakia norabide zuzenean zihola uste dute, "gehien kutsatzen duenak gehiago ordaindu behar duela" printzipioan oinarritzen zelako, are gehiago, gure udalerria ez denean iristen gutxieneko birziklatze mailara. Bilduren ustez Udal Gobernuak gai hau ez du behar bezala kudeatu eta diote "neurri zuzen batek porrot egin dezakeela", inplementazio desegoki baten ondorioz. Hondakinen Mahaia martxan jartzeko eskaera berretsita dute, neurri egokiak hartzeko.



**MEKANOSA** Errosario, 27-Elgoibar  
943 740 284

- IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA



RPS 128/24

## Ba al zenekien digestioa ahoan hasten dela?

Elikagaiak ahoan txikitzen ari gareneran, murtxikatzen hasten garenean, listuan ditugun entzimek elikagaiak partikula txikiagotan deskonposatzeaz arduratzen dira.

Hortz osasuntsuak ezinbestekoak dira digestio on bat izateko. Izan ere, ondo mastekatu ezean, urdailak lan bikoitza egin behar izaten du, eta horrek digestioa zaildu dezake, astuntasuna eraginda edo nutrienteak behar bezala xurgatzea eragotzita.

Murtxikatze on bat izateko ezinbestekoa da hortz-pieza guztiak izatea; bakar bat ez falta izatea, alegia. Esan dugun moduan, digestioa ahoan hasten da, mastekatzen hastearekin batera, beraz, hortz guztiak izateak ahalbidetuko du ondo murtxikatzea eta digestio hobe bat izatea.

Guzti horrenengatik esan dezakegu ahoa osasuntsu mantentzea garrantzitsua dela; ez dela estetika kontua bakarrik, gure gorputzaren osasuna zaintzea ere badela. Mantendu osasuntsu hortz pieza guztiak, bisitatu zure dentista eta eskatu laguntza, urdailak eskertuko dizu hortz guztiak izatea!



San Bartolome, 22 - Elgoibar  
iyd@dentalaldaz.com

943 366 377



Iker eta Paula Calvo neba-arrebak. C.V.

## Paula Calvok hiru domina eskuratu ditu Espainiako igeriketa txapelketan

Bi probatan bere marka pertsonalak ondu ditu

### Ainhoa Andonegi

Espainiako Open Astralpool-Junior Igeriketa Txapelketa jokatuko Sabadellen (Bartzelona, Herrialde Katalanak), eta han izan dira Iker eta Paula Calvo neba-arreba igerilari elgoibartarrak. Eibar Igerixan taldeko Paula Calvok sekulako erakustaldia egin zuen eta hiru domina eskuratu zituen junior mailan: zilarrezko bat eta brontzezko bi. Txapeldunorde geratu zen bizkar estiloko 100 metroko proban, marka pertsonala ondua (1.03,43) eta han eskuratu zuen zilarrezkoa. Brontzezko dominetako bat, bestalde, bizkar estiloko 50 metroko proban irabazi zuen; proba hartan ere ordura arte zeukan markarik onena ondua: 29 segundo eta 75 ehunekoan osatu zuen 50 metroko esprinta. Brontzezko bigarren

domina bizkar estiloko 200 metroko proban lortu zuen (2.18,33). Hortaz, bizkar estiloko probetan eskuratu zituen hiru dominak. Halere, podiumaren atarian geratu zen estilo libreko 200 metroko proban, laugarren eginda (2.05,30). Europako igeriketa txapelketarako txartela zegoen jokoan Espainiako probetan, baina Paula Calvok ez zuen lortu Europarako sailkatzeko eskatzen duten denboran sartzea.

### Iker Calvo, bizkar estiloko 50 metroko proban

Iker Calvo igerilaria, bestalde, bizkar estiloko 50 metroko proban lehiatu zen, senior kategorian, baina ez zen finalerako sailkatu. 141 igerilari lehiatu ziren guztira, eta 92. postuan sailkatu zen igerilari elgoibartarra, 28,31ko denborarekin.

## Nafarroako Pilota Irekiko partidak jokatuko dituzte domekan Ikastolan

### A.A.

Nafarroako Pilota Irekia txapelketa Elgoibarrera iritsiko da domekan, eta emakumezkoen kategoriako binakako bi partidak jokatuko dituzte Ikastolako frontoian. 12:00etan izango da lehen partida; sarrera doan da.

Promes kategoriako pilotariak izango dira kantxaratzan

lehenak: hain zuzen ere, Uriartek eta Galardik Insaustiren eta Betegiren aurka jokatuko dute.

Ondoren, elite mailako norgehiagoka jokatuko dute: Aizane Ibarrolak eta Andrea Capellane Maddalen Etxegaraireren eta Itxaso Erasunen aurka.



Iazko Nafarroako Pilota Irekiko irabazleetako bat. MIKEL ASKASIBAR

## 4,5 milioi euroko soberakina nola banatuko duen jakinarazi du Udalak

Bide publikoak berritzeko 200.000 euro erabiliko dituzte, eta urbanizazioa indartzeko, 100.000 euro

### A.A.

Aurreko urteko aurrekontuen likidazioa egin ostean, 4.550.000 euroko soberakina du Elgoibarko Udalak, eta osoko bilkuran azaldu zuten diru hori nola inbertituko duten. Hiru espediente aurkeztu zituen Udal Gobernuak eta hirurek egin zuten aurrera.

### 2/2026 espedientea – Kreditu gehikuntza: 40.000 euro

Udal eraikinetako informazio eta orientazio sistema irisgarriagoa ipintzeko egitasmoa finantzatzeko erabiliko dute. Finantzaketa Danobatgruppen ekarpenetik dator.

### 1/2026 espedientea – Kreditu gehigarriak: 1.382.499,42 euro

Hainbat partidatan banatuta, besteak beste, honako hauek egingo dira: bide publikoak berritzeko eta urbanizazioa indar-

tzeko –200.000 euroko eta 100.000 euroko gehikuntzak–. Hiri-ekipamenduetan eta kultura/kirol jardueretan igoerak –adibidez, jaiak finantzatzeko 70.000 euro gehiago eta kirol ekipamenduetarako 100.000 euro gehiago; bereziki, Mintxetako gimnasioa berritzeko–.

### 3/2026 espedientea – Kreditu transferentziak: 98.000 euro

Jatorrizko partidaren murrizketaren bidez –batez ere, altzarien mantentzea eta komunitate energetikoaren aurrekontua–, kreditu berriak sortu dituzte:

Bulegoko altzarietarako 13.000 euro gehiago bideratuko dira eta komunitate energetikoetarako laguntzarako, 35.000 euro gehiago. Armairuak eta komunak jartzeko proiekturako, berriz, 50.000 euro gehiago jarriko dituzte.

## Zabalik dago pala txapelketan izena emateko epea



Txapelketako irudia. ASIER ORBEA

Lagunak Pilota Eskolak emakumezkoen eta gizonezkoen pala txapelketak antolatu ditu, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Aste Santu ostean ekingo diote txapelketari, eta finalak ekainaren 19an jokatuko dituzte, Kalegoen plazako frontoian. Txapelketa herrikoia da, eta gehienez hamabi bikotek har dezakete parte. Izena emateko epea apirilaren 5ean amaituko da: doakoa da, eta afaria ere barne dago. Interesatuak telefono-zenbaki honetara deitu dezakete: 690 61 29 27 (Bergua).

## Kultur emanaldietako prezioak merkeago, irailetik aurrera

Martitzeneko osoko bilkuran ordenantza fiskalen hasierako aldaketaren onarpena landu zuten, eta, ondorioz, hainbat aldaketa izango dira tasa eta zergetan: zinema eta kultur emanaldietako prezioak merkatu egingo dituzte irailetik aurrera. Ohiko zinema emanaldi arrunta 6 eurotik 5era jaitsiko dute, eta online erosteak are eta deskontu handiagoa izango du. Udalak sarrerak Internet bidez erostea sustatu nahi du; beraz, 4,5 euroan salduko dituzte online bidezko sarrerak irailetik abendura bitartean. Antzerki emanaldiak, bestalde, 10 eurotik 8ra jaitsiko dira.

Ordenantza fiskalen aldaketak beste eragin batzuk ere izan ditu. Esaterako, hilerriko kolunbarioaren prezioa 290 eurotik 76 eurora jaitsiko da, baina gora egingo du adinekoentzako eguneko arreta zentroak: 36 eurotik 40 eurora –gizarte laguntzak jasotzen dituztenentzat 18tik 20ra igoko da–.

Asteburuetakoko menu berezia, eguneko platera, plater konbinatuak, errazioak, ogitartekoak...

Egunero zabalik

Plaza Zaharra (Soraluze) Erreserbak: 638 91 15 97





Errekaldeko igerileku naturala berreskuratzearen alde bozkatu zuten iaz. A. GOMEZ



Jubilatuek Valeriores terrazari erabilera berriak emateko proiektua aukeratu zuten. A.G.

## lazko prozesuaren emaitzak

Adin-tarteka banatuta, ermuarrek bozkaturako proiektuak eta bakoitzaren aurrekontua:

### 6-13 urte (988 ume)

- Aire zabaleko zinemaren eskaintza udako hilabete guztietara zabaltzea (10.000 euro)
- Bideojoko eta robotika tailerrak (3.000 euro)

### 14-29 urte (298 gazte)

- Elkartu ahal izateko gune publikoak egokitzea – chill out guneak, parrillak eta espazio estaliak– (50.000 euro)

### 30-64 urte (100 heldu)

- Errekaldeko igerileku naturala leheneratzeko proiektua (85.000 euro)

### +65 urte (20 adineko)

- Valerioko terrazari erabilera berriak emateko proiektua (85.000 euro).

Guztira, 1.406 herritarrek hartu zuten parte 2026ko Udal Aurrekontuaren partaidetza-prozesuan.

## 2027ko Udal Aurrekontuaren %1 ermuarrek aukeratutako proiektuetara bideratuko dute

Ermuko Udalak 250.000 euro inguru utziko ditu berriz ere herritarren esku

### Ander Gomez

Martxoan hasi eta ekainera bitartean, *Ermuak erabakitzen du* partaidetza-prozesua egingo da udalerrian. Herritarrek, adin-tarteka banatuta, Udal Aurrekontuaren 250.000 euro inguru gura duten proiektuetara bideratu ahal izango dituzte. Proposamenak jasotzen ari dira jada, eta martxoaren 31 izango da bidaltzeko azken eguna.

**lazko "arrakasta" errepikatzea** 2025a aurretik, Ermuko Udalak inkesta orokor bat betetzeko

aukera ematen zien herritarrei urteroko aurrekontua zein alorretan inbertitu nahi zuten galdetzeko: enplegua, etxebizitza, gazteria... Iaz, *Ermuak erabakitzen du* proiektua aurkeztu zuten, herritarren ideiek eta proposamenek "eragin zuzenagoa" izan zezaten udalerriarren hobekuntzan. Aurkezpenean, "salto garrantzitsu" bezala kalifikatu zuten Beatriz Gamiz alkateak. "Demokrazia parte-hartzailearen beste ariketa bat" dela azaldu zuten, "Udalak egiten duen lanaz gain, herritar bakoitzaren in-

plikazioarekin eraikitzen delako Ermua".

### Adin-tartekak, dirua eta egutegia

Formula berbera errepikatuko dute aurten: 2027ko aurrekontuaren %1 herritarren esku utziko dute, eta adin-tartekak eta diru kopuruak mantendu egingo dira. 6-13 urte bitarteko umeek 30.000 euro izango dituzte egokien deritzoten proiektuetara bideratzeko; 14-29 urteko gazteek, 50.000 euro; 30-64 urteko helduek, 85.000 euro; eta 65 urtetik gorakoek, beste 85.000 euro.

Faseak eta datak ere berdintsuak izango dira: martxoan zehar proposamenak jasoko dira; apirilean, haien bideragarritasuna –ekonomikoa, juridikoa, teknikoa...– aztertzeko tartea hartuko du Udalak; maiatzean, behin betiko proposamenen zerranda aurkeztuko dute eta herritarrek bozkatu ahal izango dituzte; bukatzeko, ekainean jakinaraziko dira proiektu bozkaturak eta 2027ko ekitaldian sartuko dira.

Joan den astean zabaldu zuten proposamenak bidaltzeko epea, eta hil bukaerara arte egongo da. Idatziz egin daiteke, Abiapuntu arreta-bulegoan, kiroldegian, Lobianon edota auzoetako postontzietan utzita. Sarean ere egin daiteke, Udalaren webguneko formularioa beteta. Umeek eta gazteek ikastetxeetan landuko dute gaia.

## Hasi dituzte Idesaren pabiloia eraisteko lanak

Gipuzkoa etorbideko eraikin zaharra botatzeko ardura duen enpresak hil hasieran egin zuen lehen esku-hartzea. Lurzoruko kutsadura kentzeko lanak egin behar zituzten, baina, bi aste atzera, eraisketari ere ekin zioten. Udalak gelditzeko agindu zuen, proiektuan aldaketak egin zituztela eta baimenik ez zutela argudiatuta. Hala, fatxadaren erdiko aldea eraitsita egon da, astelehenean lanei berrekin dieten arte. Aurrealdea hamar egunetan botatzea aurreikusi dute, eta espaloia, aparkalekuak eta tarteka erre bat moztuta egongo dira. Atzealdeko lanak egiteko oniritzi zain daude.



## 'Ermua' izena zuzen deklinatzen ikasteko bideo-lehiaketa jarriko du martxan Udalak

'Ermua mundua da!' lehiaketak 600 euro banatuko ditu

**Dorleta Vidal**

*Ermua* hitza deklinatzerakoan sor daitezkeen zalantzak eta akatsak saihesteko asmoz, *Ermua mundua da!* bideo-lehiaketa jarriko du martxan Ermuko Udaleko Euskara Sailak datozen egunotan. Ekimenaren ardatza *Ermua* izenaren deklinabide egokia sustatzea da, ohiko akatsak saihesteko eta forma zuzenak zabaltzeko; besteak beste, *Ermuan*, *Ermura*, *Ermutik* edo *Ermuko* –eta ez *Ermuara*, *Ermuatik* eta *Ermuko*, okerrak baitira–.

Lehiaketa hori 12 urtetik gorako herritar guztiei zuzenduta dago, ermuarrei zein kanpokoei, eta banaka zein taldeka parte hartu ahal izango da. Parte-hartzaileek gehienez bi minutuko bideo laburrak sortu beharko dituzte, euskaraz eta formatu digitalean (AVI, MOV, MP4 edo GIF), eta bertan *Ermua* zuzen deklinatzeko argibideak eman beharko dituzte. Lanek originalak eta aurrez argitaratu gabeak izan beharko dute, eta telefono mugikorra zein bestelako gailu digitalak erabiliz grabatu ahal izango dira, baina, gehienez, 25 MB arteko pisua izango dute.

Lehiaketa martxoaren 30etik apirilaren 26ra arte egongo da zabalik, eta bideoak *tori.eus* plataformaren bidez bidali beharko dira, *euskara@ermua.eus* helbidera, izen-emate orriarekin batera. Gainera, 12 eta 16 urte bitarteko gazteen kasuan, beharrezkoa izango da gurasoen edo tutoreen baimena aurkeztea.



*Ermua* hitza *mundu* hitza bezala deklinatzen da. EUSKARA SAILA

**Bideoak, 'Barrena.eus'-en**

Lehiaketak bi sari izango ditu. Batetik, 400 euroko sari nagusia dago, epaimahai batek erabakiko duena; epaimahaia Euskara Saileko, Euskara batzordeko, Ermua BHIko eta Berbalaguneko kideek osatuko dute. Bestetik, 200 euroko saria banatuko dute, herritarren botoetan oinarrituta. Horretarako, epaimahaiak aurrez hautatutako bideoak *Barrena.eus* webgunean jarriko dira ikusgai, eta hiru aste egongo dira botoa eman ahal izateko. Ondoren, *www.ermua.eus* atarian jakinaraziko dituzte irabazleen izenak.

Antolatzaileek nabarmendu dute bideoek baldintza batzuk bete beharko dituztela: euskaraz eginda egotea, originalak izatea eta bertan agertzen diren pertsona guztien irudi-eskubi-

deak bermatuta egotea. Halaber, edukiek ezin izango dute izara iraingarririk izan –indarkeria, arrazakeria, sexismoa edo errespetu faltak, besteak beste–, eta baldintzak betetzen ez dituzten lanak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

Bestalde, adingabeek irabaziz gero, saria ez da dirutan emango, baizik eta balio bereko erosketa-txeke batean, herriko dendetan erabiltzeko. Parte-hartzaileek, halaber, aurkeztutako lanen gaineko ardura beren gain hartuko dute, eta antolatzaileei irudien komunikazio eta erreproduzio-eskubide ez-esklusiboak lagako dizkiete.

Informazio gehiago jaso nahi dutenek edo oinarriak osorik ikusi nahi dituztenek *euskara@ermua.eus* helbidera idatzi dezakete.

## Sendagai eta produktu naturalak egiten ikasteko tailerra helduentzat

**D. Vidal**

Udaleko Kultura Sailak produktu eta sendagai naturalak egiten ikasteko tailerra antolatu du, eta izena emateko epea zabalik egongo da martxoaren 31ra arte. Tailerrak lau saio izango ditu –bi ordukoa bakoitza–, eta Lobiano Kulturagunean emango dira, apirilaren 13an, 20an eta 27an eta maiatzaren 4an, 18:30etik 20:30era.

Jarduera 18 urtetik gorako herritar guztiei zuzenduta dago, eta talde txikietan egingo da; gehienez, hamabi lagunekin.

**Trikimailuak eta errezetak**

Tailerraren edukien artean daude sendabide naturalak –I. eta II. mailak–, olio birziklatuarekin xaboa egitea eta xanpu solidoa sortzea, eta parte-hartzaileek

hainbat trikimailu eta errezeta natural ikasiko dituzte egunero gaitzei aurre egiteko: katarroei, gripearri, hotzeriei, bihotzerreari, buruko minei, sinusitisei eta kandidiasiei. Halaber, etxean edo naturan eskuragarri dauden osagai naturalekin xarabeak, infusioak, saldak eta kataplastak prestatzen ikasiko dute, farmazia eta laborategiko produktuen alternatiba gisa.

Prezioa 25 eurokoa da –22,5 eurokoa gazteentzat, erretiratuentzat eta langabeentzat–, eta izena Lobianon eman behar da.



Ermua BHIko ikasleak, azterketa egiteko tresnekin. A. REMENTERIA

## Ongaraiko ura kalitate onekoa dela erakutsi dute Ermua BHIko ikasleek

Ikasleek aukera izan dute analisi kimikoen garrantzia ulertzeko eta datuak modu kritikoan interpretatzeko

**D. Vidal**

Ermua BHIko DBHIko laugarren mailako Laborategi Praktiketako ikasleek Ongarai auzoko edateko uraren analisia egin dute, eta, emaitzen arabera, ura kalitate onekoa eta guztiz edan-garria dela ondorioztatu dute.

Ikerketa otsailean egin zuten, eta ikasleek auzoan hartutako laginak aztertu zituzten. Azterketaren helburua uraren parametro fisiko-kimiko nagusiak neurtzea izan zen: burdina, gogortasuna, alkalinitasuna, fosfatoak, silizea, disolbatutako oxigenoa, kobrea, pH-a eta eroankortasuna. Ondoren, emaitzak Espainiako batez besteko balioekin eta indarrean dagoen legegidiarekin alderatu zituzten.

Emaitzen arabera, burdina eta kobrea mailak baxuak dira, eta horrek zapora metalikorik ez egotea adierazten du. Uraren

gogortasuna ertaina dela zehaztu dute; horrek kare-pilaketa txikiak eragin ditzake, baina ez du arazo larriarik sortzen. Bestalde, pH-a, alkalinitasuna eta disolbatutako oxigenoa maila egokietan daude, eta uraren egonkortasuna bermatzen dute.

**Analisi kimikoen garrantzia**

Azterketa egiteko, Hanna Instruments enpresaren analisirako kitak erabili zituzten ikasleek; oro har, aztertutako parametro guztiak legeak ezarritako mugen barruan daude, eta, kasu askotan, Estatuko batez bestekoak baino hobekak dira.

Ikasleek nabarmendu dute esperientzia horrek analisi kimikoen garrantzia ulertzeko eta datuak modu kritikoan interpretatzeko aukera eman diela, baita tokiko baliabide naturalen balioa aintzat hartzeko ere.

**TXINDURRI TALDEA**  
Tokian tokiko

**juanano10@yahoo.es**  
Ermua (Bizkaia)

**TAXI**

**Juanan**  
**635 70 90 90**

# "Gure ekintzekin zahartzaro aktiboa sustatu nahi dugu"

**IRUNE MARTINEZ IMIRIZALDU**

PASIALEKU JUBILATUEN ETXEAREN LEHENDAKARIORDEA ETA DINAMIZATZAILEA

Zuzendaritza aldatu zenetik duela lau urte, eta Martinezen gidaritzapean, asko handitu da jubiletxeak antolatzen dituen jarduera kopurua.

## **Dorleta Vidal**

Duela 12 urte sortu zuen Iruene Martinezek (Ermua, 1993) entrenamendu kognitiboa egiteko enpresa. Horrekin lotutako saioak eman zituen hainbat urtez Ermuko jubiletxean, eta duela lau urte, bertako zuzendaritza aldatetarekin batera, proiektu bat prestatzeko agindu zioten, jubilatuen etxea biziberritzeko helburuarekin. Martinezek egindako lanarekin pozik, dinamizatzaile kontratatzea erabaki zuten, eta zeregin horretan dihardu gaur egun ere.

## **Zein zen jubiletxearen egoera zu lanean hasi zinenean?**

Momentu hartan ez zegoen ia jarduerarik, yoga eskola bat baino ez, Lobianotik kudeatzen zena. Gu pixkanaka-pixkanaka hasi ginen ekintzak gehitzen, hala nola Burulogy, yoga eskolak eta dantza, baina urteekin asko zabaldu da eskaintza. **Zer eskaintzen da, bada, gaur egun?**

Burulogyko zazpi talde daude, yogako lau, bat yoga onkologikoan, lau pilatesean, mantentze-gimnasia, mendi irteerak, petanka eskolak eta txapelketak, estilo askotariko zazpi dantza talde, sevillanak, eskulanak, ingelesa, antzerki tailerra eta kantu taldea. Jubilatuek bozkatzan dute zein ekintza nahi dituzten, eta, eskaeraren arabera, jarduerak antolatzen ditugu. Lan horretan, beti saiatzen gara herriko begiraleak kontratatzen, hori da gure lehen-tasunetako bat.

**Aipatutako ekintzen artean bi nabarmentzen dira, herrian duten oihartzunagatik: kantu taldea eta txitxi-burruntzia. Zer diozu haiei buruz?**

Kantu taldea iaz sortu zen, eta gaur egun 124 kide daude, emakumezkoak zein gizonezkoak.

Aspaldiko eskaera zen, baina ez genuen zuzendaria topatzen. Iaz, Santi eta Ricardo Totorika eta Urdiñak elkarteko zenbait gizon animatu ziren, eta ordu-tik taldea hazi eta hazi egin da. Kaxa, gitarra, saxofoia... denetik daukate! Astero entsetzen dute, betiko kantak ikasteko eta ondo pasatzeko, eta hainbat emanaldi egin dituzte dagoeneko. Bestalde, txitxi-burruntzia bigarreneguz antolatu dugu aurten, eta, iaz bezala, arrakasta handia izan du. Aurten, gainera, herriko bi eskolako umeak gonbidatu ditugu. Bi ekintza horiez gain, aipatutako nuke ere Nagusien Astea, era askotako ekintzak egiten ditugulako. Gainera, santixaue-tan txaranga sortu genuen iaz eta 110 lagunek eman zuten izena, Inauterietako kalejiran parte hartzen dugu, Korrikan parte hartuko dugu...

## **Irteerak ere egiten dituzue, ezta?**

Bai; urtean, egun bateko bizpahiru txango egiten dituzte. Duela gutxi, esaterako, sagardotegira joan ziren, eta, autobusa bete zenez, datorren hilean berriro joango dira. Bestalde, Benidormera eta Salou ingurura joaten dira urtero, eta

atzerrira joaten ere hasi dira: Mediterraneoan itsas bidaia, Lisboa...

## **Eta badaukazue eskaintza handitzeko asmorik?**

Bai, datorren urtean ekintza gehiago egitea gustatuko litzai-guke, baina mugak ere jarri behar ditugu, dirua eta lekua ez baita amaigabea. Gaur egun, ikastaro guztiek daukate itxarrote-zerrenda: pilatesean, esaterako, 30 lagun daude zain, baina ez daukagu tokirik klase gehiago jartzeko, ez jubiletxean ez Lobianon ere.

## **Zein da jardueretako parte-hartzaileen profila, adinari eta generoari dagokionez?**

Denetik dago. Esango nuke ikastaroetan parte hartzen dutenen batez besteko adina 70 urte pasatxo direla; hau da, pertsona gazteak. 55 urtetik gorakoek ere parte hartu dezakete gure ekintzetan, baina jubilatuek lehen-tasuna daukate. Bestalde, generoari dagokionez, ikastaroetan gehienak emakumeak dira; petankan, aldiz, gizonezkoak.

## **Zein da ekintza horien guztien helburua?**

Jendea aktibo egotea; hau da, zahartzaro aktiboa sustatzea,



Iruene Martinez, Pasialeku Jubilatuen Etxearen aurrean. D. VIDAL

bizi-kalitatea handitzea eta jubilatuen berri den jendeari zerbitzu bat eskaintzea.

## **Zentroak daukan mugimenduari erreparatuta, herritarren erantzuna ona izaten ari dela ematen du...**

Bai; oso gogotsu daude, egia esan. Adibidez, orain *kedadak* egiten hasi dira. Pertsona batek plan bat proposatzen du, Whatsappez zabaldu, eta nahi duten guztiak batzen dira. Duela hiru aste, Durango-Zornotza ibilbidea egiteko proposamena egin zuen erabiltzaile batek, eta 88 lagun agertu ziren tren geltokian!

## **Zenbat bazkide ditu jubilatuen etxeak gaur egun?**

1.750 inguru; tartean, Mallabikoak, Eibarkoak eta Elgoibarkoak ere bai. Izan ere, ikastaroetan eta txangoetan parte hartzeko bazkidea izan behar da. Kuota ez da oso handia, hamar euro ordaintzen dira urtean, eta izena ematerakoan bost euro ordaindu behar dira txartela egiteko. Ekintzak beste alde batetik ordaintzen dira; ez dira garestiak, baina uste dugu prezio bat ipiniz gero jendearen konpromisoa sendoagoa dela.

**"Kantu taldea sortzea aspaldiko eskaera zen, eta gaur egun 124 kide ditu"**

**"Datorren urtean ekintza gehiago egiteko asmoa daukagu, baina muga batekin"**



Kantu taldea Izelaietako ermitan elkartzen da astelehenero. D. VIDAL

# Rock eta elektronika jaialdiek alaituko dute udaberria

Vertigo Rock jaialdiko antolatzaileek kontzertu guztiak iragarri dituzte, Primavera Fest-ekoek ere lehen izenak ezagutarazi dituzte eta Elektrojairen kartel osoa bihar gauean aurkeztuko dute

## Ander Gomez ERMUA

Datozen hiru hilabeteetan hiru musika jaialdi egingo dituzte Ermuan, gustu guztietarako eskaintzarekin. Reggaeton erritmoak izango dira nagusi Primavera Fest jaialdian; ondoren, Vertigo Rock-ek hartuko dio lekukoa, herrigunean punk, rock eta metal doinuak zabalteko; azkenik, Elektrojairen teknoak egingo dio ongietorria uda sasoiari. Jaialdi horiek guztiak kolektibo eta musikazale ermuarrek antolatutakoak dira, "herriatik eta herritarrentzat sortuak", eta doako sarreara dute.

## Primavera Fest, apirilean

Laugarren aldia izango du Primavera Fest DJ jaialdiak. Apirilaren 25ean izango da, 19:00etatik 02:00etara, Orbe Kardinala plazan. Norbanakoen DJ saioak zein B2B estilokoak –bi disko-jarzaile mahai berean– egongo dira. Gehienbat, reggaeton musika nahastuko dute, baina tech house eta patxanga musika ere entzun ahal izango da. Plazako kiosko eszenatokira igoko dira Danel Santiago eibartarra, Wonka bilbotarra, Daaira eta IkerB ermuarrak, Dgabanna eta Roni Ross bilbotarrak eta DJ Tinny mundakarra.

Afalorduan ordubeteko geldialdia egingo dute, eta tarte horretan Primavera Festen robota argiduna herrian eta tabernetan zehar bueltaka eramango dutela kontatu dute, bertako komertzioari laguntzeko asmoz. Plazako saioak bukatutakoan, *after party*-a egingo dute Sagarra Gastro Pub-en, 06:00ak arte. B2B formatuan arituko dira Daaira eta IkerB ermuarrak.

## Vertigo Rock, maiatzean

Maiatzaren 9an izango da Vertigo Rock jaialdiaren XIX. edizioa, eta dagoeneko aurkeztu dute kartel osoa. Beti bezala, Euskal Herriko zein Estatu mailako artistek eta bertako taldeek –Ermukoak eta Eibarkoak– osatuko dute. Orbe Kardinala plazako Main Stage-n, Martxoaren 8a plazako *Xabi Ciarsolo* taulan eta Ermuko hainbat txokotan muntatuko dituzten eszenatokietan izango dira Anestesia, Ezpalak, The Izards, Cobra, Dire

**Jaialdi guztiak Ermuko musika kolektibo eta zaleek antolatzen dituzte, eta sarrera librekoak dira**



Vertigo Rock jaialdiak 19. aldia izango du. ESTIBALITZ GONZALEZ

End, Staff, Konorte, Kraken, Gem eta Judash.

Musika emanaldiez gain, herri bazkaria egingo dute, eta txartelak aste honetan bertan jarri dituzte salgai. Infreñu tabernan daude, 15 euroan, eta bi plater, postrea eta tragoa barne hartuko dute. Aukera beganoa ere eska daitekeela zehaztu dute.

## Elektrojaia, ekainean

Ekainaren 27an izango da Elektrojaia, eta ziur inguruko zein urrutiko teknozaleek ez dutela hutsik egingo Betiondoko apartalekuko urteroko hitzorduan. Oraingoan, bederatzi izen iragarri dituzte: Dave Clarke, Truncate, Pushmann, Nina Casth, Iñigo Diaz, Nova, Atxe, Anuxx eta Koldo Intermusic.

Aurretik, hiru ekitaldi dituzte *Elektrojaia On Tour* egitarauaren baitan: maiatzaren 30ean egingo den Ixuaren urteurreneko festa, apirilaren 4rako Gasteizko Jimmy Jazz aretoan antolatu duten DJ gaua eta martxoaren 28an Ermuan egingo den aurkezpen jai. 23:59an hasiko dute biharko hitzordua, Sagarra Gastro Puben, eta Elektrojairen XVIII. edizioko kartel osoa emango dute ezagutzera. Osteen, Ermuko Pirata eta Anuxx DJek girotuko dute gaua, B2B saioan.



Primavera Fest jaialdiak lau urte beteko ditu. AITHOR



Elektrojairen 18. aldia izango da aurtengoa. EKAITZ MANTE

**Barrena**  
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Jarri ezazu zure publizitatea  
BARRENA astekarian edo  
www.barrena.eus webgunean

943 743 704  
688 769 657

**AMALUR**  
FISIOTERAPIA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675

688 619 896  
Zeharkale, 12 behea  
48260 ERMUA

**RIF**  
ITURGINTZA  
KONPONKETAK

Valdespina Markesa 16 · ERMUA  
605 71 10 81



Ander Martinen lagunak izan ziren antolatzaileak, familiarekin batera. JULEN URIBE



Sendiari eginiko omenaldia. VALENTIN MUGARZA

# 400 laguneko familia batu zen Borrokalari Eguna, Ander Martinen oroimenez

Martxoaren 14an, zapatua, Borrokalari Eguna ospatu zen Mallabian, iazko uztailen zendu zen Ander Martin Estenaga pilotari eta pilotazale mallabitarren omenez antolatutako egun osoko jaia.

## Ander Gomez

Euritsu argitu zuen egunak eta halaxe mantendu zen iluntzera arte, baina eguraldia ez zen oztopo izan Martin II.aren omenez antolatutako ekintza sorta egiteko. Burrumbada elektrotxaranga izan zen kanpora ateratzeko ausardia izan zuen bakarra; gainontzean, aurreikusitako jarduera guztiak Mallabia I. pilotalekura pasatu ziren. Frontoi barruan lagun, senide eta herritar guztiak batuta egoteak familiarterko kutsu are politagoa eman zion ospakizunari.

Leku aldaketa salbu, guztia aurreikusitako bezala igaro zen. Ander Martinek umetatik aritutako lagunak dantzak "hunkigarririk" izan zirela kontatu du familiak, eta Mendibil koruak kantatutakoak "benetan ederrak". Bizkaiko Pilota Federakuntzaren koadro bat, jertse bat eta argazki batzuk jaso zituzten. Gisasolatarrek jaitziko herrikirol materialarekin "pike sanoa" izan zuten Martinen kuadrillak, eta, osteko pilota partidetan, "Aitor Elordiri gustatuko litzaizkioken tantoak" egin zi-

tuztela kontatu dute, barrez. Bazkarirako 290 txartel zeuden salduta, baina, azken orduan batu zirenekin, 300 lagunetik gora izan ziren. Mus txapelketan 16 bikotek hartu zuten parte, eta Jon Gisasola eta Jon Zalduegi izan ziren garaile. Aritz Mayorak eta Iban Goyogonak kontzertu akustiko sorpresa eman zuten, Anje Uriberen eta Jon Ander Altunaren laguntzarekin; eta Apokhalipsis, Desein eta Storbais taldeen doinu biziek borobildu zuten Ander Martinen bitzita ospatzeko eguna.



Txistulariak, Gazte Alaiko umek dantzatu bitartean. V. MUGARZA



Aitor Elordik bota zuen pilota txapelketako hasierako txapa. V.M.



Juan Luis Totorika eta Unai Martin, errifan salmentan. J. URIBE



Apokhalipsis kontzertuan. J.U.



Iban Goyogana, Aritz Mayorak eta Anje Uribe, sorpresa akustikoan. J.U.

## Txakurrek egindako eraso dela eta, salaketa jarri dute eta ikerketa zabalik da

Udalak "ezinbesteko" deritzo "txakurrekin beharrezko neurriak hartzeari"

**U.M.Z. / E.U.L. SORALUZE**


Joan den zapatuan Karakaterako igoeran dagoen pista batean izandako txakurren erasoaren harira, oharra kaleratu du Soralezeko Udalak asteon. Bertan esaten duenez, Ertzaintzak eta bertan jarritako salaketak izango duen berezko prozeduraz aparte, "Udalak ere abian jarriko ditu bere esku dauden neurriak eta prozedurak".

Halaber, Udalaren ustez, "erasoan parte hartu duten txakurrekin beharrezko neurriak hartzea ezinbestekoa" da, "gertatutakoaren larritasuna ikusita". Eta txakurren jabeari dei egin dio, "beharrezko neurriak bere borondatez har ditzan".

### Jabeen erantzukizuna

Bestalde, Udalak esan du ez dela lehen aldia herrian halako zer-bait gertatzen dela, eta "gogorazten du txakurren jabeen erantzukizuna dela animaliak behar bezala lotuta eta kontrolatuta izatea, bereziki arrisku-tsuak izan daitezkeenak edo zaintza-lanetan aritzen diren arrazetakoak".

Azkenik, "edozein intzidentziaren aurrean", Udaltzaingoa-



Karakate. ARTXIBOKOA

rekin harremanetan jartzeko eskatu die Udalak herritarrei.

### Hiru txakur

Zapatuan, martxoaren 21ean, gertatu zen txakurren eraso. Hiru ziren, bi mastin arrazakoak, eta Ezozi auzoko mendi magalean gora mendigainera bidean zihozen bi herritarri egin zieten eraso. Herritar bat adin nagusikoa zen eta bestea, adin txikikoa.

Erasoa jasan zuen adin nagusiko herritarrik BARRENA-ri azaldu zionez, Karakateko mendigainera ailegatu baino

lehenxeago, txabola baten inguruan, hiru txakur hurreratu zitzaizkien, zaunka, eta haie-tako batek, mastin arrazakoak, haginka egin zion izterrean, besoan eta bizkarrean, eta, ondoren, ileetatik heldu zion atzerraxeago zetorren adin txikikoari. Zorionez, adin txikikoari ez zion zauririk eragin.

Erasoa gertatu orduko, txakurren jabeek lagundu zieten herritarrei, eta larrialdietara deitu zuten. Bi herritarrik erietxera eroan zituzten. Erietxean, adin nagusikoari puntuak eman zizkioten, izterrean zituen zauriak ixteko, eta adin txikikoari, berriz, azterketa egin zioten, zauririk ez zuela ziurtatzeko.

Bitartean, ertzainak eta suhiltzaileak hurreratu ziren gertakaria gertatu zen lekura. Alkatetik jakinarazi duenez, Udala larunbatetik bertatik harremanetan dago eraso jasan duten herritarrekin eta txakurren jabeekin, "hartu beharreko neurriak hartzeko".

Ertzaintzak jakinarazi duenez, berriz, martitzen honetan, martxoaren 24an, aurkeztu zuten salaketa, eta Ertzaintzak ikerketa zabaldu du.

## Emakumeen ahalduntze eskolan gertu dute irailera arteko egitaraua

Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa eta batukada feministarena berriz egingo dituzte, arrakasta izan zutelako

**U.M.Z. SORALUZE**

Soraluzeko Emakumeon\* Ahalduntze Eskolak udaberriko eta udako egitaraua kaleratu berri du. Antolatzaileek esan dutenez, udazkeneko eta neguko jardunari bukatuta, hari buruz urtarrean egindako balorazio-topaketako ekarpenetatik abiatuta antolatuta dute apiriletik irailera bitarteko egitarau berria, partaideen eta antolatzaileen artean; zazpi jardueraz osatuta dago, baina jardueren erdiak baino gehiago hainbat egunetakoak izango dira. Ohi duten moduan, ekitaldiak emakumeen arteko topaketa batekin borobilduko dituzte –beheko taulan xehetasunak–.

### Doan, baina izena emanda

Izen-ematea gaur itxiko dute, martxoak 27, eta, ekintzak doakoak diren arren, izena ematea komeni da, antolaketa ahalbidetzeko. Hori bai, ikastaroak betetzen ez diren kasuetan, hiru egun lehenago amaituko da izen-emate epea. Jakinarazi dutenez, jardue-ra guztiek izango dute zaintza zerbitzua, eta, beranduenez, ekintza baino hiru egun lehenago eskatu beharko da. Halaber, talde eragilearen proposamenez eta

aukera berdintasuna bermatzeko, plaza kopurua baino izen ematea handiagoa bada, zozketa egingo dute; hori martxoaren 31n izango da, eta lehenetsiko dira Soraluze bizi diren emakumeak\*.

## Egitaraua

- Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa –bigarren aldia–, apirilaren 16tik ekainaren 18ra, eguenero.
- Ongizate emozionala eta autozainketa, apirilaren 22tik aurrera.
- Hitzaldia: Jarduera fisikoa menopausian, apirilaren 28an.
- Zineforum feminista, *Maspalomas*, maiatzaren 17an.
- Mendi irteerak, maiatzaren 24an eta irailaren 13an.
- Batukada feminista tailerra, ekainaren 20an eta 21ean eta uztailaren 11n eta 12an.
- Soraluzeko emakumeon\* arteko topaketa, ekainaren 25ean.

## "Eguraldi zoragarria" eta "ambientea ederra" Iruñean

Eguaztenean, ezin hobeto ibili ziren Itxaropena Erretiratuaren Elkartearrekin Iruñera joan ziren 50 herritarrik. Begoña Elizburuk kontatu duenez, entzierroaren nondik norakoak ikusi ondoren, euren kasa ibili ziren, eta gero, bazkaltzera joan ziren. "Primeran" ibil zirela dio, "giroa zoragarria eta ambientea ederra" izan zirela. Horren erakusle, 17:00ak pasa oraindik bazkalostean zebiltzan, kantuan jo eta ke –argazkia kantu ostekoa da–, eta, bueltan Altsasun geratu ziren, etxeratzeko presa barik.



BEGOÑA ELIZBURU

## Aisialdia eta heziketa langai Katamarran Haur Txokoan

Apirilerako eta maiatzerako bina jarduera antolatu ditu Katamarran Haur Txokoak. Aisialdia eta heziketa uztartuko dituzte haien bitartez. Apirilaren 14an, hitzaldia izango da, *Eraso jokabidea Haur hezkuntzan*, Amaia Arrieta adituaren eskutik; eta apirilaren 19an, *Gure ipuin kuttunak* saioa; maiatzean, berriz, hilaren 14an, *Haurren emozioen bidelagun* hitzaldia egingo du Donna Apellanizek; eta, azkenik, maiatzaren 15ean, kantu jolasak egingo dituzte.

Hitzaldietarako ez da izena eman beharrik. Beste bi jardueretan, aldiz, ekintzak baino pare bat aste lehenago zabalduko dute epea.

# Soraluzen euskara biziberritzeko eta euskaldunak ahalduntzeko AROA

Ordezkarari politikoei, ikastetxeek, guraso elkarteek eta gazte eta euskara elkarteek parte hartu dute diseinuan

**Ubane Madera Zangitu** SORALUZE Datozen 10 urteetan Soraluzeko euskara indarberritzeko eta euskaldunak ahalduntzeko AROA plana aurkeztu dute. Joan den astean egin zuten aurkezpen ekitaldia, eta han izan ziren Soraluzeko Udal Gobernuko zein oposizioko udal ordezkariek, Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak, Katamarran, Atxolin eta Keixeta guraso elkarteak, Kukumixio Aisialdi Taldeak, Plaentxi Eskolakoak eta Soraluze BHI Institutukoak. Planaren nondik norakoak esplikatzen aurretik, euskarak Soraluzen bizi duen egoeraren berri eman zuten. 2021ekoak dira dauden azken datuak, eta, haien arabera, euskararen ulermenaren handitu egin da, baina beheranzko joera du etxeko hizkuntza euskara bakarrik dutenen kopurua. Lehen hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren kasuan, gaztelaniak zein beste hizkuntza batzuek geroz eta toki handiagoa dute.

**Datu berrien zain** Euskararen kale erabilerari dagokionez, jasotako lehen eta azken datu ofizialak 2001ekoak



AROA planaren aurkezpenaren amaieran, Korrikaren petoak banatu zituzten; argazkian, taldeetako ordezkariek petoekin. U.M.

eta 2016koak dira. Beheranzko joera ageri da datuotan. Adierazgarria da helduak eta umeak elkarrekin daudenean entzuten dela euskara gehien. Transmisioa bermatze aldera, umei euskaraz egitearen ohituratik eratorri daiteke. Datu berriak izateko, aurten egingo du kale neurketa Soziolinguistika Klusterrak.

Bestalde, Soraluzen populazioa zahartu eta helduen multzoa (20-61) biztanleriaren parterik handiena bihurtu ostean, hizkuntzaren balantza gaztearen aldera desorekatu da. Horrez aparte, migrazioen eragina nabarmena izan da azken hamarkadetan.

**Transmisioa, babesguneak...** Datu horiek guztiak kontuan hartuta, zortzi helburu aurreikusituz; honako hauek: euskararen transmisioa bermatzea;

euskal hiztun aktibo gehiago egotea; euskaratik urrun dauden herritarrak zein iristen ari direnak euskarara modu naturalean hurbiltzea; behar handienak dituzten herritarrei behar bezalako babes, laguntza eta erraztasunak emateaz gain, euskara haiena ere badela sentitzen laguntzea; euskaraz bizitzeko au-

kerak zabaltzea; euskarak babesguneak izatea herri osoan eta euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa izatea.

**Parte hartze zabala** Hori abiapuntu hasi ziren AROA plana diseinatzen, orain dela urtebete pasa, aurkezpenean esan zuten, parte-hartze zaba-

larekin. Inkestetan 217 herritarrek parte hartu zuten, eta hiru saioetan 30 herritarrek baino gehiagok bakoitzean.

Azkenean, sei ardatzetan eta hamahiru erronkatan banaturik, 69 ekintza dituen plana osatu dute. Plan honen lanketa gauzatzea zein jarraipena AROA taldearen esku egongo da.

## Euskararen garapena

**8 puntu behera**  
20 urtean zortzi puntu jaitsi da etxeko hizkuntza euskara dutenen portzentajea.

**8 puntu gora**  
35 urtean zortzi puntu hazi da ulermenaren portzentajea.

**%25**  
Helduak bakarrik daudenean elkarrekin %25 dira euskaraz kalean.

**%34**  
Umeak bakarrik daudenean elkarrekin %34 dira euskaraz kalean.

## Datozen bi urteotarako lehentasunezko ekintzak

**Hizkuntzen kudeaketa** Bileretan, hitzaldietan, ekitaldi publikoetan eta abarretan hizkuntzen kudeaketa nola egin adostu, inor kanpoan utzi gabe, baina euskara beti erdigunean ipiniz. Horretarako, formakuntzak eta baliabide teknologikoak aztertuko dituzte, eta ahal bezain laster praktikara eramanez, elkarteen eta erakundeen estres linguistikoa arintzeko eta erakunde nahiz eragile guztiok modu bateratuan arituz herritar guztiei begira.

**Familiekin lanketa** Familiekin lanketa bereziak egiten hasi. Umeen zein helduen euskararekiko sentsibilizazioan sakontzeko moduak bilatu, eta euskal hiztun bezala aktibatu. Euskaraz lasai aritzeko elkarguneak sortu eta indartzeko pausoak eman. Haurrei eta nerabeei euskara errefortzuak

eskaini, eta gurasoei euskara eskolak ere bai, euskararen ezagutzan aurrerapausoak emateko.

**Baliabide-sortak** Euskaraz ulertu eta hitz egiteko, kolektiboei zuzendutako baliabide-sortak landu edo bildu: merkatariarentzat, zaintza arloko langileentzat, gurasoentzat...

**Lidergo-erreferenteak** Haurrentzat eta gazteentzat erreferenteak izan daitezkeen herriko pertsonen lan berezia, formazio soziolinguistikoa eskainiz eta euskararekiko lotura ikusaraziz.

**Ahozketasuna-sorkuntza** Gazteek zein helduek ahozko euskara lantzeko kultur sorkuntza erabili, antzerkien edota ikus-entzunezko tailerren bitartez.

**Ahalduntze tailerrak** Euskal hiztunak ahalduntzeko tailerrak antolatatu.

**Ikerketak** Soraluzen euskararen historia eta egoera ikertzeko ekimenak sustatu. Martxan dago Soraluzeko euskarari buruzko ikerketa lana, eta aurten egingo da gaur egungo kale erabilerari buruzko neurketa. Honetaz gain, haurren, gazteen eta gurasoen hizkuntza ohiturei buruzko azterketa ere egingo da.

**Zeharkakotasuna** Euskara eremu guztietan garrantzitsua izateko neurriak hartu, eta herrian lantzen den edozein arlotan AROA planak eragina izan dezan aritu: kirol ekimenetan, harrera planean, hezkuntza foroan eta beste hainbatetan.

## Etxeko hizkuntza

2021

ITURRIA: EUSTAT

|                        |     |
|------------------------|-----|
| EUSKARA                | %25 |
| GAZTELANIA             | %52 |
| EUSKARA ETA GAZTELANIA | %18 |
| BESTE HIZKUNTZA BAT    | %5  |

20 URTEAN ZORTZI PUNTU EGIN DU BEHERA ETXeko HIZKUNTZA EUSKARA DUTEN BIZTANLEEN PORTZENTAJEAK. GORAKA DOAZ GAZTELANIA EDO BESTE HIZKUNTZA BAT ERABILTZEN DUTENAK. ERAGIN HANDIA DAUKA ERABILERA OROKORREAN.

# Bazkideak egiteko kanpaina abiarazi du Soraluze Futbol Taldeak

Datorren urtean, 50. urteurrena izango du herriko futbol taldeak

**Ubane Madera Zangitu** SORALUZE Soraluze Futbol Taldeak bazkide gehiago lortzeko kanpaina abiarazi du. Ekimenaren helburua futbol kluba hobeto osatzea da. "Gaur egungo bazkideen artean ez dago apenas gazterik. 30-60 urte bitarteko oso bazkide gutxi daude. Adibidez, Sorako jokalaririk izan diren asko ere ez dira gure bazkide, eta, dauden kide gehienak 50 urte-rik gorakoak dira. Iaz hainbat bazkide berri egin ziren, ahoz ahokoari esker, eta orain, atzemaite berri horrekin, kluba osatu eta bazkideen datuak eguneratu nahi ditugu, kontu korranteekin, telefonoekin eta bestelako informazioa ere batuta. Komunitatea osatu nahi dugu. Gero, helburua da bazkideekin harreman zuzenagoa lantzea; adibidez, Whatsapp taldea sortu bazkideendako, eurei zuzenean informazioa bidali...", azaldu dute Sorako zuzendaritzako ordezkariak.

**Edozein izan daiteke bazkide** Sorako zuzendaritzak emandako datuen arabera, gaur-gaurkoz, 115 bazkide ditu herriko futbol taldeak; batzuk, gainera, kluba-



Sorako zuzendaritzako kideak eta delegatuak, Ezoziko futbol zelaian, martitzenean. U.M.

ren sorreran, orain dela 50 urte bazkide egin ziren. Bazkide-sortzaileak dira, hain justu. "Askok Soralucen lan egiten zuten orduan", esan dute. Bazkide ia guztiak gizonak direla esan dute. Konparazioa egite aldera, kluba sortu zenean, orain 49 urte, 400 bazkide izan zituen.

Adierazi dutenez, futbol taldeko bazkide izateko nahikoa da izen-emate formularioa bete eta urteko kuota ordaintzea, 30 euro. Nahi duena izan daiteke bazkide, baita umeak ere, eta formularioa Ezoziko futbol ze-

laiko tabernan zein *Barrena.eus* atarian eskura daiteke. Oraingo kanpainen egiten diren bazkide berriak 2027tik aurrera izango dira klubeko kide.

**50 urte** Bazkide berriak egiteaz bat, datorren urterako bazkide guztiendako txartel berria sortzeko asmoa ere badutela jakinarazi dute; izan ere, Soraluze Futbol Taldeak 50. urteurrena izango du 2027an. Txartel berriei aparte, klubaren 50 urteak ospatzeko bestelako ekitaldi batzuk egite-

ko asmoa ere partekatu dute. Lotu ahala joango dira haien berri ematen.

## Futbol zelaia aldatu

Baina hori baino lehen, beste erronka batzuk ditu Soraluze Futbol Taldeak; adibidez, azpiegiturak berritzeko beharra du.

Batetik, futbol zelaia berritu beharra du, erabat zaharkituta dagoelako, eta hori aurtengo udan egin nahi du klubak; futbol partidurik ez dagoen garaian, alegia. Azaldu dutenez, obraren gaia Udalak martxan dauka. Obraren finantzaketari dagokionez, berriz, Soraluzeko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Realaren artean ordainduko dute egokitzapena.

Bestetik, futbol zelaiko aldagelak eta taberna berritzeko asmoa ere badute Sorak eta Soraluzeko Udalak, baina hori aurrerago egiteko laga beharko dute, lehenastuna zelai aldatek dauka eta.

## Bazkari erraldoia

Bestalde, aurtengo denboraldia agurtzeko, berritasun batekin datoz: orain arte, denboraldi amaieran egin izan duten bazkaria –batik bat, jokalaririk nagusienekin egin izan dutena– aurtentzako klubaren osatzen duten hamar taldeetako jokalariekin egingo dute; futbol eskolatik hasi eta Erregional Mailarainokoen. Dagoeneko badituzte eguna eta lekua zehaztuta: Araneke frontoian, maiatzaren 30ean.

Denboraldiaren amaierari dagokionez, esplikatu dute aurreikusitakoa baino astebete geroago bukatuko dela aurtengoa; hau da, maiatzaren 16ko asteburuan barik, maiatzaren 23an bukatuko da, Realak jokatu duen Espainiako Kopako finalaren eraginez.

## Ligan jo eta su, eta aparteko errugbi hitzordu gehiago

Bete-betean dabilta Sorazatek Rugby Taldean 2025-2026ko denboraldian. Enekoitz Igartua ordezkariak esandakoaren arabera, asteburu honetan, maila guztietako taldeek jokatuko dute: 10-12 urtez azpikoak Gasteizera joango dira, Arrasaterekin; 14 urtez azpikoak Zarautzen dute hitzordua; eta 16 urtez azpikoak, berriz, Ordiziaren kontra jokatuko dute.

Xehetasunen arabera, aurtengo denboraldian 14 urtez azpikoak Debarroa taldearekin ari dira jokatzeko; Debarroan daude Eibarko, Arrasateko eta Soraluzeko errugbilariak. 16 urtez azpikoak, berriz, HiruHerri taldean ari dira jokatzeko, eta han daude Elorrioko, Arrasateko eta Soraluzeko errugbilariak.

Osterantzean, Igartuak aurreratu duenez, apirillean hasi eta udara bitartean, Soraluzen hainbat errugbi hitzordu izango dira. Besteak beste, apirilaren 18an Seven partiduak jokatuko dituzte eta ekainaren 13an Errugbi Eguna ospatuko dute.

## Buruz buruko partida jokatu du Gallastegik gaur

Aste honetako eguaztenean, Korrika Kulturalaren baitan, pilota partiduak jokatu dituzte Soraluzeko elkarteetako gazteenek. Gaur, barikua, berriz, Gipuzkoako txapelketako buruz buruko jokatu du Julen Gallastegik, Araneke frontoian, gomazko paletarekin. Aurkari izango du Andoingo Belauntzaran eta 17:00etan hasiko da partida.

# 115

BAZKIDE

Gaur egun, 115 bat bazkide ditu klubak, batzuk sorreran bazkide egin zirenak.

# 30

EURO

Sora Futbol Taldeko bazkide izateko kuota 30 eurokoa da urtean.

**Aurten, klubeko ekipo guztietako jokalariekin egingo dute denboraldi amaierako bazkaria**

**LAGUNAK**  
colchonero textil hogar

Jantzi ezazu estiloz zure ohea.

- Tamainu standar guztiak.
- Zure ohera moldatzen den neurria aukeratu dezakezu.
- Akabera eta koloreetan aukera zabala, kalitate goreneko poliester eta polipielaren artean aukeratu ahal izango duzu.

Martxoan, %5eko beherapena oheburuetan!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar  
943 74 44 57 - 685 75 69 78 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**MENDIZABAL**  
okindegia  
Ogi - Prentsa - Gosariak

Astelehenerdik ostegunera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 19:30

Ostiralak  
08:00 - 13:00  
Larunbatak  
08:30 - 13:30

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99

**OSTIA HARATEGA**

Enkarguak hartzen ditugu  
Gertuko ganadua  
Ezazu tripa, txistora, saltxeta eta mingaina

Etorbidea 5  
Telefonoa: 943 75 21 75

**ASIGOR**

Terraza, kontzertuak, dardoak...  
Ostiraletan pintxopotea

Gipuzkoa etorbidea 1

**Txoko**

Eguneko menua, plater kulinariak, hamburgesak, ogitarlekak, nahiak, pizza, gosaria...  
Enkarguak egiten dira  
Tel. 943 75 17 09

**ELIZPE HORTZ KLINIKA**

Tel. 943 75 25 67

## Dinamika berria aurkeztuko du Zuhatza Debako Euskaltzaleon Mugimenduak

Hausnarketa-prozesuaren nondik norakoak azaltzeko ekitaldia egingo dute gaur

### Izaro Aulestiarte

"Argi dugu Debako mugimendu euskaltzaleak urrats bat harago joan behar duela. Euskarak mugimendua behar du. Eta gu mugitzera goaz". Hitz horiekin laburbildu du Zuhatzak azken hilabeteotako hausnarketa-prozesutik ateratako ondorio nagusia. Prest dauka, hortaz, etorkizunera begira adostutako dinamika berriaren abiapuntua, eta horren berri emateko aurkezpen ekitaldia egingo du gaur, ostirala, 19:00etan, Kultur Elkartean.

Gogorarazi dutenez, elkartearen jarduna sendotzeko bidean hainbat pauso esanguratsu eman ditu Zuhatzak azken urteotan, hala nola 2016an egindako go-goeta-prozesua, 2020an abiatutako bazkide-kanpaina eta BARRENA komunikabidea sortzeko egindako prozesua. Eta ekimen horiek guztiek "mugimendua



Eraberritze-prozesuan parte hartu duten zenbait herritar, Kultur Elkartean. A.T.

indartzeko eta bere proiektua sendotzeko" balio izan dutelakoan daude zuhatzakideak. Nolanahi ere, beharrezkotzat jo dute gaur egungo egoera aztertu eta etorkizunerako berregituraketa plan bati ekitea, eta helburu horrekin

ekin zioten, hain justu, 2025eko azaroan, eraberritze-prozesuari.

Eider Itxasok azaldu duenez, elkartearen jardunean erronka eta behar ezberdinak identifikatu dituzte. "Ezinbestekoa" ikusi dute, adibidez, Zuhatzaren

izaera gaur egungo parte-hartze moldeetara egokitzea: "Elkarte izaera estatiko batetik harago, Zuhatzak Debako euskaltzaleon mugimendu irekia eta dinamikoa behar duelako izan, askotariko jendea bilduz, askotariko jendea aktibatuz". Eta, bide horretan, euskararen erabilera handitzeko estrategia eraginkorragoak lortzeko helburuarekin, betiere, lantaldeak eta dinamika parte-hartzaileak jarri dituzte martxan azken asteotan, "euskaltzale orok euskararen alde bere ekarpena egiteko aukera eta espazioak izan ditzan".

### "Abiapuntua baino ez"

Dinamika horien baitan, abiapuntu bezala, lehentasunezko bi lan-ildo zehaztu dituzte: Kolore Anitz –euskararen transmisioa ardatz hartuta, gurasoak, aisialdiko begiraleak eta hezkuntza komunitate barne hartzen dituen lantaldea– eta Adaxka –gazteen artean euskarazko harremanak estatutu eta euskaraz bizitzeko espazio berriak eraikitze helburua duena–.

Lan-lerro horiek dinamika oso baten abiapuntua baino ez dira, ordea, bestelako proiektu batzuk

garatzeko aukera zabalik dagoela nabarmendu baitute mugimenduko kideek.

"Lanketa sakona egin dugu, elkartearen jardun orokorra aztertuz eta abian dauden egitasmoak berrikusiz. Eta, prozesu horren ondorioz, Zuhatzaren dinamika berriaren marko estrategikoaren zirriborroa osatu dugu". Bada, eskuen artean daukaten "zirriborro" horren berri emateko garaia dute orain. Horregatik, aurkezpenera bertaratzeko dei egin diete herritarrei: "Aurrerantzean ere elkarrekin pausoak ematen jarrai dezagun".

### Irudi berria

Antolaketa-eredua, parte-hartze moduak eta lan-ildo estrategikoak berrikustearekin batera, nortasun korporatibo berria ere aurkeztu dute. Logotipo berriak zuhatz (belar-meta) baten goiko alde irudikatzen du, elkartearen izenari eta orain arteko irudiari keinu eginez. Eta lore baten silueta ere gogorarazten du, Kolore Anitzek izan duen irudia gogoraraziz. Mugimenduaren parte diren egitasmoek estilo bereko irudia izango dute.

## Kulunkako 62 dantzarik parte hartuko dute barra klasikoaren erakustaldian, bihar

### I.A.

Kulunka Dantza Eskolako 8 urtetik gorako 62 dantzarik barra klasikoaren erakustaldia egingo dute bihar, larunbata. Ikuskizuna 12:30ean izango da, ibaiaren alboko pasealekuan; eguraldi kaskarra egingo balu, berriz, elizako klaustroan. 25 bat minutu iraungo du.

Alaitz Izaga Kulunka taldeko irakasle eta zuzendariak azaldu duenez, erakustaldia urteroko hitzordu bihurtu da dagoeneko Deban. Izan ere, Dantzaren Nazioarteko Eguna apirilaren 29an bada ere, herriko dantzariak biharko emanaldiarekin ospatu ohi dute efemeridea. Kulunka sortu zenetik, urtero egin dute hitzordua. Aurtengoa hamalaugarren aldia izango da.

### Bederatzi ariketa

Eskolan ikasturtean egiten duten lanaren lagin bat aurkeztuko dute bertan. "Balleteko egune-

roko eskoletan egiten edo lantzen dugun lehenengo zatia da barra klasikoa, eta bertan, teknika lantzeko ariketak egiten ditugu. Aurten, bederatzi ariketa izango dira guztira, bata bestearen atzetik: beroketa, *plié tendu*, *jete*, *rond de jambe*, *frappé*, *grand battement*, luzaketak eta agurra",

zehaztu du. Ariketa bakoitza bi aldeetara egiten dute; eskuinera eta ezkerreara, "gorputzaren teknika guztiz lantzeko".

Emanaldia ez ezik, hura iragartzeko kartela ere aurkeztu dute. Miren Azkarate dantzaria du protagonista eta argazkia Igor Barojarena da.



Herriko dantzariak, iazko emanaldian. IGOR BAROJA

## Kalean Kantuzen eta Eingoren erromeria ibiltaria, hirugarrenez

Bizkaiko Eingo taldeak eta Debako Kalean Kantuzek erromeria ibiltaria egingo dute etzi, igandea. Foruen plazan jarri dute lehen hitzordua, 12:30ean, eta, handik abiatuta, kalez kale ariko dira ondoren, herria musikaz eta dantzaz girotzen, 14:30era bitartean.

Kalean Kantuzeko kideek azaldu dutenez, bi taldeak erromerian

elkarrekin ariko diren hirugarren urtea izango da. "Lehendik ere bagenuen Eingo taldearen berri, eta hartu-emanean jartzea erabaki genuen. Eta, egia esan, oso gustura ibili ginen denok Deban izan ziren lehen aldian; harrezkero, urtero etortzen dira".

Bada, aurreko urteetako ildo beretik, herria dantzan eta kantuan jartzeko helburuarekin prestatu dute igandeko saioa ere. Euskal Herriko kantu herrikoiak izango dira nagusi kantutegian, eta herritarrei erromerian parte hartzeko dei egin diete.

## Laburbira zirkuituko film laburrak emango dituzte igandean

*Olentzerori eskatu nion* (Amaia San Sebastian), *Erreka zoko hortan* (Ekain Bertiz), *Fishy* (June Asua), *A-Maniki* (Elixabet Nuñez), *Geratzen den hori* (Aitor Gametxo), *Orain zer?* (Ainhoa Urgoitia) eta *Hortzikara* (Ane Cuesta) film laburrek osatzen dute Laburbiraren aurtengo edizioa, eta lan horiekin osatutako 80 minutuko emanaldia

izango da igandean, Kultur Elkartean, 19:00etan.

Laburbira ekimen ibiltaria da; herriz herri dabil, martxoaren 1az geroztik, eta etzi, hilak 29, egingo dituzte zirkuituaren 23. aldi honetako azken proiektioak; tartean, Debako. Taupa Euskaltzaleon Mugimenduko kideen esanetan, bi xede nagusi ditu egitasmoak: euskal zinemagintza hauspotzea, batetik, zinemagileei beren lanak erakusteko aukera emanez, eta herritarrei euskaraz sortutako film laburrak ezagutaraztea, bestetik.

## Abian dira Gudarien Plaza eraberritzeko eta oinezkoentzako gune bilakatzeko lanak

Next Generation funtsekin finantzatuak dituzte, 440.510,71 euroko aurrekontuarekin

I.A.

Debako Udalak, Debegesarekin lankidetzan, Gudarien Plaza oinezkoen gune bihurtzeko berurbanizazio-proiektuari ekin zion martxoaren 16an. Hain zuzen, 440.510,71 euroko aurrekontua dauka eta Next Generation Europako funtsekin finantzatuak dutela azaldu du Udal Gobernuak. Lanak uda aurretik amaitzea aurreikusten dute.

Helburu nagusia Gudarien Plaza oinezkoentzako bihurtzea da, plazaren eta pasealeku estaliaren arteko sarbide seguruagoa eta zuzenagoa izan dadin; gaur egun, N-634 errepide nazionalak bereizten du: "Aldaketa horri esker, oinezkoek ibilgailurik gabeko gune batez gozatu ahal izango dute; mugikortasuna eta segurtasuna hobetuko da eta plaza hiri-ingurunean hobeto integratzea sustatuko da".

Halaber, proiektuak "ingurumenari dagokion alderdi sendoa ere" baduela gaineratu dute. Next Generation Europako funtsekin laguntzari esker, hain zuzen, jasangarritasun-irizpideak obren fase guztietan txertatuko direla azaldu dute, "materialen aukeraketatik hasi eta drainatze eta



Hilaren 16an ekin zieten Gudarien Plaza eraberritzeko lanei. I.A.

argiztapen sistemak hobetzeraino. Beraz, esku-hartzeak ekarpen garrantzitsua egingo du eremu-ko deskarbonizazioan; herriko karbono-aztarna murrizten lagunduko du horrek. Horretarako, zoladura iragazkorak erabiliko dituzte, energia-eraginkortasun handiko argiztapena jarriko dute eta biodibertsitatea sustatzen duten gune berdeak sortuko dituzte".

### Aurreikusitako lanak

Funtsean, "segurtasuna, irisgarritasuna eta jasangarritasuna"

ardatz hartuta, lau esku-hartze nagusi izango ditu proiektuak. Batetik, aipatu bezala, plaza oinezkoentzako gune bilakatuko dute, eta, horretarako, ibilgailuen pasabidea kendu egingo dute. Bestetik, pasealeku estaliarekiko lotura hobetu egin nahi dute: gaur egun N-634 errepideak oztopatzen du bi guneen arteko irisgarritasuna, eta hobekuntzak egin nahi dituzte, bi espazioen artean dabilzan oinezkoek zirkulazio arinagoa eta seguruagoa izan dezaten. Era berean, hiri-altzariak eta berdeguneak jarriko

dituzte, hala nola bankuak, jardinerak eta zuhaitzak, espazio atseginagoa sortu nahian. Eta, azkenik, plazan dagoen eskultura birkokatu egingo dutela azaldu dute, "hiri-diseinu berria behar bezala integratzeko".

Gainera, proiektuak zoladura berritzea, eta argiteria publikoko sarea, ur-hornidura eta saneamendua hobetzea aurreikusten du, "irisgarritasun- eta jasangarritasun-irizpideen arabera, ingurumena errespetatuko duen espazio inklusibo bat sortzeko helburuarekin".

Alazne Txurruka Debako alkatearen hitzetan, "proiektu hori Udalak herriko espazio publikoak hobetzeko duen konpromisoaren erakusgarri da; betiere, gure bizilagunen segurtasuna eta ongizatea lehenetsiz. Gudarien Plaza guztiontzako leku irisgarri eta seguruagoa izango da, eta herri-ingurunearekin integratuz osotuagoa bultzatuko da. Urrats garrantzitsua da, Deba erosoagoa, seguruagoa eta irisgarriagoa izan dadin denontzat".

### Edukiontzia eta Itzulia

Lanak iraun bitartean, orain artean Gudarien Plazan zeuden edukiontzi guztiak estazio zaharreko aparkalekuan egongo dira.

Bestalde, Udalaren esanetan, obrak ez dio Debatik igaroko den Euskal Herriko Itzuliari eragingo, faseka ariko baitira: lehenik, espaloiak egokituko dituzte, eta, ondoren, plazako lanei eta, azkenik, errepidekoei ekingo diete.

## Ongizate emozionalari buruzko tailerra, gaur, Debako Gaztelekuan

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Treba Nerabeak programaren baitan, ongizate emozionala lantzeko saioa egingo dute gaur arratsaldean Gaztelekuan, 17:30etik 19:30era. 12 eta 16 urte bitarteko gazteek izango dute bertan parte hartzeko aukera.

Nerabeei ahalduntze-prozesuan laguntzea da Treba Nerabeak ekimenaren helburua. Ildo horretatik, gazteek beren emozioak identifikatzen, ulertzen eta kudeatzen ikasteko helburuarekin antolatuko dute saioa. Parte-hartze dinamikien eta ariketa praktikoen bidez, sentimenduak lantzeko tresnak emango dizkiete, eta autoezagutza eta ongizate emozionala sustatuko dituzte.

## Biharko ihes-gelarekin itziko dute M-8aren bueltako egitaraua

7 eta 12 urte bitartekoei zuzendutako ihes-gela jarduerak ludiko eta hezitzailea izango da bihar, 17:30ean, Aldats pilotalekuan, Udalak Martxoaren 8aren harira aurten antolatutako egitarauaren baitan. Genero-estereotipoak, feminismoa eta zaintza-lanen garrantzia landuko dituzte saioan. 25 lagunek parte hartu ahal izango dute, gehienez.

## 1.200 sinadura, Eguneko Zentroa egunero ireki dezaten



NEREA BEDIAUNAETA ALKORTA

Debako Eguneko Zentroa egunero irekitzeko sinadura bilketa amaitu dutela iragarri dute kanpainaren sustatzaileek. Bi aste iraun duen ekimenean 1.200 sinadura baino gehiago batu dituzte, eta jasotako guztia las-

ter aurkeztuko dute Debako Udalean eta Gipuzkoako Foru Aldundian, gai horren eskumena duten erakundeek eskaria kontuan izan dezaten. Aurreikuspenak beteta, pozik daude sustatzaileak: "Ezin sinetsita

gaude jendeak zer-nolako erantzuna eman duen". Gainera, azpimarratu dute eskaera ez dela Eguneko Zentroko erabilatzaileen eskaria bakarrik, baizik eta herritar askorena ere badela.

## Herritarren Saria Zortziko Eztiarentzat



ZEGAMAKO UDALA

Nagore Dorrnsoro debarrak eta Julian Villena elgoibartarrak ekoizten duten Zortziko Eztiak Herritarren Saria lortu zuen martxoaren 15ean Zegaman ospatu zen Erlezain Egunaren baitan egindako Gipuzkoako 26. Ezti Lehiaketan. Gustura daude aitortzarekin. "Epailak ematen duten sari nagusia eskuratu ez badugu ere, publikoak norberaren ezti aintzat hartzea baino hoberik ez dago", azaldu du Dorrnsorok.

## Ibilbide berria izango du etzi jokatu den 34. Amaiak Bat txirrindulari probak

**Nerea Bedialauneta Alkorta** DEBA Lehen eta bigarren urteko kade mailako 34. Amaiak Bat txirrindularitza proba jokatu da etzi, martxoak 29, Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak Amaiak Bateko Txirrindularitza Elkartearen laguntzarekin antolatuta.

Antolatzaileek azaldu dutenez, hitzorduak berrikuntza nabarmenak dakartza: batetik, ibilbidea berri egin dute, "zerbait berria probatzearen", eta, bestetik, eguna ere aldatu dute; orain arte larunbatez jokatu izan den lasterketa igandera pasa dute.

Txirrindulariek 43 kilometro osatu beharko dituzte, iaz baino bederatzi gutxiago. 150 parte-hartzailetik gora espero dira, eta lasterketa eskualdeko errepideetan barrena ibiliko da. Hasierako zatian, Elgoibarrerako joan-etorria egingo dute; ondoren, Errotazarreko biribilgunetik

Mutriku aldera joko dute, eta, Galdona igo eta jaitsi ondoren, Saturraran paretik Debara itzuliko dira.

### Irteera neutralizatua

Tropela 10:40an abiatuko da, Foruen plazatik, eta irteera neutralizatua izango du, Lorea ta-

bernaren pareraino. Helmuga Hondartza kalean egongo da, eta, aurreikuspenen arabera, lehen sailkatua 12:00ak baino lehen iritsiko da: erritmoa aurreikusitakoa bada, 11:51 alde-rako espero dute. Sari banaketa Foruen plazan egingo dute, 12:30etik 13:00etara bitartean.



Parte-hartzaileak helmugaratzen. ANDER SALEGI

## "Giro ezin hobea" Lasturko Martxan



LASTURKO MENDI MARTXA

Lasturko IX. Mendi Martxari buruzko balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Hasieran eguraldi "nahasi samarra" izan bazen ere, parte-hartzaileen "jarrera ezin hobea" nabarmendu dute. "Zuek gabe hau ez litzateke posible izango", adierazi dute. Bide beretik, mendi martxa posible egin zuten babesleei eta baliabideak eskura jarri zizkien Itziarko Auzo Udalarari eskerrak eman dizkiete, baita Mendaroko Udalarari ere, anoa-postuetan jartzeko karpak uzteagatik. "Hurrengo urtean berriro elkar ikusiko dugu, ibilbide berriekin eta sorpresa ugariarekin!".

# Barrena astekaria DOAN jasotzen jarraitu nahi duzu?

DEBA-ITZIAR

Apirilaren 17tik aurrera astekaria etxean jasotzeko ezinbestekoa izango da eskaera-orria betetzea

\*Zuhatzako bazkide bazara ez daukazu eskaera-orria bete beharrik

Eman izena!

☎ 632 04 33 22 ☎ 943 19 13 83

📍 Eskaera-orria online bete:

[barrena.eus/harpidetzak](http://barrena.eus/harpidetzak)



## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA

## LAN-ESKAINTZAK

**Elgoibar.** DBH-4ko ikasle bati etxean Matematika eta Ingeles eskolak emateko norbait behar dugu. Astelehen eta asteazkenetan, bi ordu egun bakoitzean. 656 77 42 15

**Elgoibar.** Emakume euskaldun heldu baten bila gabiltza, bi haur ikastolara eramateko eta/edo hartzeko. Egunean 1,5 ordu. 699 18 37 90

## ESKAERAK

**Elgoibar.** Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Berehala hasteko moduan nago. Titulu soziosanitarioa daukat, eta paperak, legez. 641 32 24 73

**Elgoibar.** Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa eta esperientzia ditut. 641 75 62 13

**Elgoibar.** Lan bila nabil. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. Malgutasun osoa. 600 68 19 41

**Elgoibar.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Margoketa, iturgintza... lanak egiteko ere prest nago. 603 72 70 67

## DENETARIK

**Ermua.** Alanbiketa eta liburuak galduta. Martxoaren 12an, osteguna, alanbiketa bat eta Garbiñe Larreak idatziriko bi liburu utzi

## ZORION AGURRAK



## ELGOIBAR

## Unai, Lia eta Alaitz

Zorionak, hirukote: Unai, Lia eta Alaitz. Familia guztiaren partetik.



## ERMUA

## Intza

Zorionak, Intza! Martxoaren 29an, 9 urte! Segi beti bezain alai. Ondo pasa! Patxo potolo bat, etxeko partetik.



## ELGOIBAR

## Unai

Zorionak, Unai, astelehenean 2 urte bete zenituelako. Patxo handi bat familiakoena eta, bereziki, Juneren partetik.



## ELGOIBAR

## Malen

Zorionak, Malen, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu potolo bat, etxeko partetik.

## Iragarkia jartzeko

943 744 112

[sailkatuak@barrena.eus](mailto:sailkatuak@barrena.eus)

[www.barrena.eus/sailkatuak](http://www.barrena.eus/sailkatuak)

- Asteazkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- BARRENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu.

## Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurra helbidean sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara edota Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz [zorionagurra@barrena.eus](mailto:zorionagurra@barrena.eus). Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.

|                      |  |  |  |
|----------------------|--|--|--|
| <h1>OSASUN GIDA</h1> | <p>RPS 271/12</p> <p><b>ainhoa</b><br/>Ainhoa Iriondo Ansolak</p> <p>Jausoro plaza, 6 behean - Elgoibar</p> <p>943 531 953<br/>669 565 745</p> | <p><b>aldaz</b><br/>hortz klinikak</p> <p>RPS233/13</p> <p>943 366 377</p> <p>San Bartolome, 22</p>  | <p><b>NATUR HOUSE</b><br/>Ainara Iriondo Ansolak</p> <p>GIZA ELKARERAKO ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA</p> <p>RPS 203/16</p> <p>Toribio Etxebarria, 22<br/>Elber</p> <p>677 551 850</p> |
|                      | <p>RPS 183/12</p> <p><b>Uzuri</b><br/>optika audio</p> <p>Elgoibar</p> <p>943 740 359 Deba</p> <p>943 192 192</p>                              | <p><b>fisio&amp;mas</b><br/>Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea</p> <p>RPS 177/10</p> <p>Tresbido kalea, 13</p> <p>943 740 191 / 667 953 638</p> <p><a href="http://www.fisio-mas.com">www.fisio-mas.com</a></p> | <p><b>Jeku eder</b><br/>hortz klinika</p> <p>RPS 171/12</p> <p>Elena Herrero Lobo</p> <p>Alta Agine Erparantza, 5 - Elgoibar</p> <p>943 530 053</p>                                |

ELGOIBAR

## Juanita Urain Arrieta



2026ko martxoaren 21ean hil zen, 92 urte zituela.

*Eskerrik asko emandako ezagutza  
eta maitasun guztiagatik.*

Zure familia

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunera agertu izana ere.

ELGOIBAR

## Lolita Canales Vallejo



Felix Etxeberria *Parapanen* alarguna  
2026ko martxoaren 25ean hil zen, 92 urte zituela.

*Borrokalaria nekaezina izan zinen azken unera arte;  
beti izango zara gure oroimenean.  
Maite zaitugu.*

Etxekuak

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunera agertu izana ere.


### Barrena eskelak: zabalkunde handiena Debarreanean

ESKELAK JARTZEKO:  
**943 744 112 - [barrena@barrena.eus](mailto:barrena@barrena.eus)**

Bulegoak:  
**DEBA:** Ifar kalea, 12 - 943 191 383  
**ELGOIBAR:** Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112  
**ERMUA:** Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350  
**SORALUZE:** Errabal, 15 - 943 751 304







**OSTIRALA 17**

**ERMUA** Sustrai ZirKuSS taldea

Diziplina anitzeko esperientzia eskaintzen du, zirku tradizionalaren mugei aurre eginez. Ermua Antzokian, 20:30ean

Katamarran Haur Txokoan, 10:00etan.

- **ELGOIBAR** Zaintzako eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua Lila emakumeen etxean, 16:00etan.
- **ITZIAR** Itziarko Irakurketa taldea (haurrak eta gazteak): 'Tintin: adarbakarraren sekretua' Burugorri eraikineko 2. solairuan, 17:30ean.
- **ERMUA** Ikastaroa: 'Berridatz dezagun

**artistak ezabatu zituen historia!** Emakumeen Topalekuan, 17:30ean

- **ITZIAR** Itziarko irakurketa taldea – haurrak eta gazteak--: 'Tintin: adarbakarraren sekretua' Burugorri eraikineko bigarren solairuan, 19:30ean.
- **ITZIAR** Itziarko irakurketa taldea – helduak--: 'Pleibak' Burugorri eraikineko bigarren solairuan, 19:00etan.



**OSTIRALA 17**

**ELGOIBAR** Antzerkia: 'Kolapsoa'

Jon Ander Urrestiren *Kolapsoa* lanak publizitate agentzia bateko hiru kideren ibilerak ditu ardatz. Azken orduko eskaera batek, ordea, hankaz gora jarriko du agentzia. Gauza bakar bat saltzea lortu behar dute: gehiago ez erosteko gogoia". Herriko Antzokian, 19:00etan.

**ASTEAZKENA 15**

- **SORALUZE** Udaberrirako proposamenak Katamarran Haur Txokoan, 10:00etan.
- **MENDARO** Jai batzordearen bilera Txoriaitz aretoan, 18:00etan.
- **ELGOIBAR** 'Epeletan' literatura saioa Gotzon Garate Udal Liburutegian, 19:30ean.

**OSTEGUNA 16**

- **SORALUZE** Udaberrirako proposamenak Katamarran Haur Txokoan, 10:00etan.
- **MENDARO** ArkeoSaiok. 'Marfil y huevos de avestruz: identidad, género y liderazgo en las sociedades del

**pasado'** hitzaldia Miriam Luciañez izango da hizlaria. EHUK, Suharri elkarteak eta Mendaroko Udalak antolatuta. Udalbatza-aretoan, 18:30ean.

**OSTIRALA 17**

- **SORALUZE** Udaberrirako proposamenak Katamarran Haur Txokoan, 10:00etan.

**ORDU ALDAKETA**

**Ordubete aurreratu domekan**

Asteburu honetan udako ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, martxoaren 29an, ordubete aurreratu beharko da ordularia: 02:00etan 03:00rak izango dira.



**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- 27 OSTIRALA Oruesagasti / Lasuen-Elezgaray / M. Alves
- 28 ZAPATUA Arriola / Lasuen-Elezgaray / A.M. Baz / \*M. Alves
- 29 DOMEKA Arriola / Lasuen-Elezgaray / A.M. Baz
- 30 ASTELEHENA Soto / A. Zalduegi / A. Alcalá
- 31 MARTITZENA Garitaonandia / A. Zalduegi / A.M. Baz
- 1 EGUAZTENA Arriola / A. Zalduegi / M. Alves
- 2 EGUENA Soto / A. Zalduegi / A. Alcalá
- 3 BARIKUA Soto / H. Burgoa / A.M. Baz
- 4 ZAPATUA Yudego / H. Burgoa / A.M. Baz
- 5 DOMEKA Yudego / H. Burgoa / A. Alcalá
- 6 ASTELEHENA Yudego / Lasuen-Elezgaray / M. Alves
- 7 MARTITZENA Soto / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri
- 8 ASTEAZKENA Garitaonandia / Lasuen-Elezgaray / M.I. Ugarte
- 9 OSTEGUNA Arriola / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri
- 10 OSTIRALA Fernandez / L. Apraiz / M.I. Ugarte
- 11 LARUNBATA Yudego / L. Apraiz / I. Lecumberri
- 12 IGANDEA Yudego / L. Apraiz / M.I. Ugarte
- 13 ASTELEHENA Oruesagasti / H. Burgoa / A.M. Baz
- 14 ASTEARTEA Barrenetxea / H. Burgoa / M. Alves
- 15 ASTEAZKENA Soto / H. Burgoa / I. Lecumberri
- 16 OSTEGUNA Garitaonandia / H. Burgoa / A. Alcalá
- 17 OSTIRALA Arriola / A. Zalduegi / M.I. Ugarte

\*09:00-13:30

**2026KO BOTIKA ORDUTEGIAK, ASTELEHENETIK OSTIRALERA:**

- Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
- Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
- Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
- Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
- Itziarko botikina: 09:00-12:30

**GUARDIA ORDUTEGIAK**

- Egunez:** 09:00-22:00
- Gauetz:** 22:00-09:00
- Eibarren urte guztian, eguneroko: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 206 100)
- Larunbatak:** Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
- Deba-Mutriku: 09:30-13:00
- Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
- Igandeak eta jaiegunak:** Deba-Mutriku: 11:00-13:00

**FARMAZIAK**

- DEBA** A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01
- DEBA** H. BURGOA: Astillero, 2 - 667 33 88 90
- ELGOIBAR** ARRIOLA: Santa Ana, 1 - 943 74 01 40
- ELGOIBAR** BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77
- ELGOIBAR** GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
- ELGOIBAR** YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
- ERMUA** A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03
- ERMUA** M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
- ERMUA** A. ALCALA: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
- ERMUA** I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
- ERMUA** M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26
- MALLABIA** E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14
- MENDARO** FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
- MUTRIKU** LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
- MUTRIKU** L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
- SORALUZE** SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38
- SORALUZE** ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

**ZINEMA**

**ELGOIBAR**

- HERRIKO ANTZOKIA
- 'Balandrau, vent salvaje' Larunbata, 28: 19:00, 22:15 Igandea, 29: 19:00 Astelehena, 30: 21:00
- 'Evolution' (euskaraz) Igandea, 29: 16:30
- 'Los domingos' Osteguna, 2: 19:00 Ostirala, 3: 19:00
- 'Los pecadores' Larunbata, 4: 19:00, 22:15 Igandea, 5: 19:00 Astelehena, 6: 21:00
- 'Extinción' Igandea, 5: 16:30
- 'Amarga Navidad' Ostirala, 10: 19:00 Larunbata, 11: 19:00, 22:15 Igandea, 12: 19:00 Astelehena, 13: 21:00
- 'Baba Yaga eta sorginkeriaren liburua' Igandea, 12: 16:30
- 'Sorry baby' (Ongarri zinekluba) Asteazkena, 15: 19:30

**ERMUA**

- ERMUA ANTZOKIA
- 'Los miserables. El origen' Larunbata, 28: 19:30 Astelehena, 30: 20:30
- 'Sin conexión' Larunbata, 28: 22:00 Igandea, 29: 19:30
- 'Hoppers' Igandea, 29: 17:00
- 'El mago del Kremlin' Osteguna, 2: 20:30
- 'Balandrau. Viento salvaje' Larunbata, 4: 19:30 Astelehena, 6: 20:30

- 'El testamento de Ann Lee' Larunbata, 4: 22:00 Igandea, 5: 19:30
- 'Chirp, Honey Hillseko ikertzailea' Igandea, 5: 17:00
- 'Valor sentimental' Osteguna, 9: 19:00
- 'La hija pequeña' Larunbata, 11: 19:30 Astelehena, 13: 20:30
- 'Torrente presidente' Larunbata, 11: 22:00 Igandea, 12: 19:30
- 'Tafiti y sus amigos' Igandea, 12: 17:00
- 'Pillion' Osteguna, 16: 20:30

**DEBA**

- KULTUR ELKARTEAN
- 'Laburbira' (Euskarazko film laburren emanaldia) Igandea, 29: 19:00

**EIBAR**

- COLISEO ANTZOKIA
- 'Amarga Navidad' Larunbata, 28: 16:30, 19:45, 22:30 Igandea, 29: 17:00, 20:00 Astelehena, 30: 19:30
- 'Águilas de El Cairo' Larunbata, 28: 16:30, 19:00, 22:30 Igandea, 29: 17:00, 20:00 Astelehena, 30: 19:30
- 'Valor Sentimental' Larunbata, 28: 19:00, 22:30 Igandea, 29: 20:00 Astelehena, 30: 19:30
- 'Tafiti eta lagunak' Larunbata, 28: 17:00 Igandea, 29: 17:00

AZKEN BERBA

## "Bizi nahi dugu, ez bizirik iraun"



JUAN CARLOS MARTIN  
PSIKOLOGOA

Esaldi hori M-17an entzun zen, itotzen ari dela sentitzen duen pertsona baten laguntza-oihu bat bezala. Sentsazio hori ohikoa da gaur egun jende askorentzat. Bitartean, gerra artifizialak sortzen dira, aberatsak aberatsago eta pobreak pobreako izateko helburu bakarrekin. Orain, armamentu-arloko enpresak aberasten ari dira, eta, gero, eraikuntza-enpresak aberastuko dira.

Errealitatea da ikasitako babesgabatasun-egoeran mantentzen gaituztela, eta bertan gure kezka bakarra da bihar gaur baino okerrago ez egotea. Hori bai, bitartean, entretenitu egiten gaituzte, seinalatuz lana kentzera datorren etorkina, marratik pasatzen ari diren feministak eta Espainia hautsi nahi dutenak.

Entretenimenduzko joko *ayusista* edo *trumpista* bat, martxan jartzen dutena ez gaituzten konturatu pixkanaka-pixkanaka eta harea mugikorrek balira bezala itota amaituko dugula, gurekin itotzen ari denari errua bota nahian.

## Berdel Egunaren atarian, Mutrikuko moila prest dago berriz ere jendez betetzeko

Goizetik iluntzera arteko egitaraua prestatu dute antolatzaileek biharko, larunbata

**Nerea Bedialauneta Alkorta** MUTRIKU Berdel Eguna jada ezinbesteko hitzordu bihurtu da askorentzat. Berdela sustatzeko helburuarekin 1993an jaio zen ekimen xume hura denborarekin herriko ospakizun nagusietako bat izatera ailegatu da. Urtez urte sendotuz joan da, eta gaur egun identitate propioa duen jaia da Mutriku. Haren arrakastaren gakoa herritarren parte-hartzea eta boluntario askoren lan isila eta nekagabea dira. Horri esker, herria itsasoaren eta gastronomiaren topaleku bihurtzen da egun batez. Hain zuzen, 29. aldia ospatuko dute bihar, hilak 28, eta moila berriz ere jendez gainezka egotea espero dute.

Eguerdian izango da ekitaldi nagusia. 13:00etan hasiko den herri-dastaketan sasoiko arrain urdina izango da protagonista nagusia. 1.700 kilo inguru lehengai erabilia milaka mokadu prestatuko dituzte dozenaka boluntarioek, askotariko proposamen gastronomikoen bidez. Bertaraten direnek herriko zein inguruko sukaldari eta tabernariak berdelarekin egindako sorkuntzak dastatu ahal izango dituzte, zapore eta prestateta anitzekin. Berdela eza-gutzeko eta produktu hori koinatzeko dauden moduak ikasteko eta ikusteko aukera izango dute. Ohiko platerak ez dira faltako –marmitakoa, arrain-zopa, piperrada edota berdel erre-. Horrez gain, focaccia, arrautza beteak, aguakatearekin eta pi-



Boluntarioak berdela erretzen. MUTRIKUKO UDALA

killo piperrekin egindako konbinazioak, entsalada epelak, krepeak, entsaladilla eta txatka ere eskainiko dituzte.

Jakiak eskuratzeko modua, urtero legez, berbera izango da; hau da, mokaduak tiketean bidez banatuko dituzte: euro baten truke bi pintxo eskuratu ahal izango dira. Platerkaden kasuan –marmitakoa, arrain-zopa, piperrada eta berdel erre-, tiket bakarraren truke emango direla azpimarratu du antolakuntzak.

### Jarduera sorta zabala

Biharko jaia, baina, ez da gastronomia kontua soilik. Mutrikuko Udalak jarduera-sorta zabala ondu du, herriko eragile ugariaren laguntzarekin. Goizean hasiko da mugimendua. 10:00etan irekiko dute egitaraua, GRABNI txapelketako pilota partidekin; Gipuzkoako eta Bizkaiko selek-

zioak aurrez aurre arituko dira lehian, Miruaitz frontoian. 16:30ean, berriz, binakako neurketek emango diote jarraipena txapelketari.

10:30ean, Kofradia Zaharreko arkupean, *Izan arrantzale* tailerrak itsas mundura gerturatu ditu haurrak eta gazte txoak. Goizean bestelako ekimenek ere osatuko dute eskaintza: 11:00etan, belaontzien arteko IX. txapelketa eta Mutrikuko eta eskualdeko ekoizle artisauen eta sortzaileen azoka izango da portuan, eta

**13:00etan hasiko den herri-dastaketan sasoiko arrain urdina izango da protagonista**

12:00etan, herriko abesbatzen doinuek beteko dute Zabel plaza.

Berdel dastaketa hasten den une berean –13:00–, gainera, trikitilariak kaleak girotuko dituzte. Eguna borobiltzeko, 19:00etan, Izan Bai eta Bide Batez taldeek erromeria egingo dute portuko oholtzan.

### Aitortza eta atariko giroa

Egun handia biharkoa bada ere, egitaraua martxan da jada. Martxoaren 18an hasi zuten jaia, *Berdelaren egungo egoera, zer dakigu eta nola kudeatzen da?* hitzaldiarekin.

Hurrengo egunetan ere hainbat hitzordu izan dira, eta horien artean nabarmenena Berdel Aipamena izaten da, herriko pertsona edo elkarte baten lana aitortzen duena. Aurten, Kalbaixoko ermitari lotuta dagoen Kalbaixoko Kriston Deunaren Kofradiako kideek jaso dute saria, "era batera edo bestera, herriaren irudi ona zabaltzen lagundu izanagatik". Martxoaren 20an banatu zuten, eta, aitortza jasotzera kofradiako hainbat kide bertaratu baziren ere, saria Mari Carmen Ansoregi *Ibiri*-k –kofradiako egungo lehendakaria– eta Jose Manuel Arruti *Gaztañei*-k –urte luzez kofradiako presidente izandakoa– jaso zuten, guztien izenean.

Gainera, gaur iluntzean ere izango da giroaz gozatzeko aukera: taberna batzuetan berdela ardatz duten pintxoak eman-gotuzte, pintxo-pote formatuan, 19:00etan hasita. Ordu berean, VII. Berdel Txapelketaren finala jokatu da, Danok Bat Pilotazale Elkartearen eskutik. Miruaitzera joaten direnek elite mailako zesta-punta partidak ikusteko aukera izango dute.

**Barrena**  
BATZEN GAITUENA

egin zaitez  
**Barrenakide!**  
barrena.eus/egin-kide



**ZOZKETA**



**Saria:**  
**Korrikako materiala**

**Barrenakide sarituak:**



**Jesus Mari Olalde Arana (Ermua)**  
**Rafael Alvarez Aizpurua (Elgoibar)**  
**Jose Francisco Bilbao Suinaga (Eibar)**